

Kulturaren Euskal Behatokiaren Estatistika eta Azterketa Bilduma
Colección de Estadísticas y Estudios del Observatorio Vasco de la Cultura

13

IKUSPEGIAK

ARTEEI ETA KULTURA INDUSTRIEI
BURUZKO ESTADISTIKAREN DATUEN
IRAKURKETA ANALITIKOA

2009

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA



IKUSPEGIAK

ARTEEI ETA KULTURA INDUSTRIEI
BURUZKO ESTADISTIKAREN DATUEN
IRAKURKETA ANALITIKOA

2009

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA

Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia

Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco

Vitoria-Gasteiz, 2012

Lan honen bibliografia-erregistroa Eusko Jaurlaritzako Liburutegi Nagusiaren katalogoan aurki daiteke:
<http://www.bibliotekak.euskadi.net/WebOpac>

| | |
|-------------------------------------|---|
| Argitaraldia: | 1.a, 2012ko ekaina |
| Ale-kopurua: | 600 ale |
| © | Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa Kultura Saila |
| Internet: | www.euskadi.net |
| Argitaratzailea: | Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco Donostia-San Sebastián, 1 – 01010 Vitoria-Gasteiz |
| Diseinua eta maketazioa: | Canaldirecto • www.canal-directo.com |
| Itzulpena: | Lete Itzulpenak |
| Inprimaketa: | Leitzaran Grafikak, S. A. · Martin Ugalde Kultur Parkea · Andoain · Gipuzkoa |
| ISBN: | 978-84-457-3252-6 |
| LG: | VI 477-2012 |

AURKIBIDEA

| | |
|----------------|----------|
| SARRERA | 6 |
|----------------|----------|

| | |
|---|----------|
| EAEko ARTEEI ETA KULTURA INDUSTRIEI BURUZKO ZIFRAK | 8 |
|---|----------|

| | |
|-----------------------------------|----|
| 1. Dimentsio sektoriala | 9 |
| 2. Titulartasuna | 13 |
| 3. Lurraldea | 15 |
| 4. Agenteen profilak | 17 |

| | |
|------------------------------|-----------|
| ZEHARKAKO IRAKURKETAK | 32 |
|------------------------------|-----------|

| | |
|--|----|
| 1. Asimetriak | 33 |
| 2. Zuzeneko kultura vs. kultura erreproduzigarria. | 42 |
| 3. Arteen eta kultura-industrien bolumen ekonomikoaren bilakaera | 44 |
| 4. Euskarazko kultura | 46 |
| 5. Ekimen publikoaren pisua eta mendekotasuna maila | 51 |
| 6. Berritzea eta nazioartekotzea | 53 |
| 7. Generoa | 56 |

| | |
|------------------|-----------|
| LABURPENA | 60 |
|------------------|-----------|



SARRERA



Txosten honek Kulturaren Euskal Behatokiak eginiko *Arteei eta Kultura Industriei buruzko 2009ko Estatistikatik* lortutako emaitzetatik abiatuz begirada espezifiko eta nahitakoa eskaintzen du. Gainera, lehen aldiz, 2007ko estatistikarekiko konparazioak aurkezten dira zenbait adierazleren bilakaera aztertzea ahalbidetzeko. Hala ere, kontuan hartu behar da 2009ko informazioaz ari garela eta, beraz, orduan krisiaren inpaktua oraindik ezin zela argi atzeman; izan ere, 2011. urteari dagozkion datuen hurrengo edizioaren bitartez eta bilakaera-begirada aplikatuz aztertu ahal izango da sakonago koiuntura ekonomikoak EAEko kultura-sektore guztietan izan duen eragina.

Begirada horiekin azterketa sektorial hutsa gaitzen da Euskal Autonomia Erkidegoko (EAE) arteen eta kultura-industrien joerak eta ezaugarriak modu orokorrean atzeman ahal izateko. Horretarako, azterketa hiru ataletan egituratu da:

Lehenik, arteen eta kultura-industrien ezaugarri orokorrak ezarri dira dimentsio sektoriala, titulartasuna, lurralde-banaketa eta sektore bakoitzeko agenteen profilak aztertuz.

Bigarrenik, zeharkako izaera duen azterketa bat egin da. Horrela, begirada zifra globaletara bideratu beharrean alderdi zehatzetara bideratu da, esaterako, sektoreetako asimetriak, kultura erreproduzigarriaren eta zuzeneko kulturaren arteko desberdintasuna, agenteen jarduera ekonomikoaren bilakaera, euskarak jarduera kulturalean duen pisua, agente pribatuen mendekotasun-maila publikoa, berrikuntza- eta nazioartekotze-maila eta generoa.

Hirugarrenik, egindako azterketaren ideia nagusiak biltzen dituen laburpen bat landu da.

Joerak atzemateari dagokionez, kontuan hartu behar da 2007ko edizioan eta 2009ko edizioan datuak lortu ziren kultura-sektoreetan soilik egiten direla denborazko konparazioak eta betiere, informazio-bilketan txertatutako aldaketa metodologikoei ahalbidetzen badute.

Laburbilduz, *Ikuspegiak. Arteei eta Kultura Industriei buruzko Estatistikaren datuen irakurketa analitikoak 2009* izenburuko txostenak EAEko kultura-errealitatea aztertzeko modu berri bat jarri du abian, estatistika sektoriala oinarritzat hartuta eta zeharkako ikuspegia lortzea ahalbidetzen duten parametro analitikoak txertatuta.



EAEKO ARTEEI ETA KULTURA INDUSTRIEI BURUZKO ZIFRAK



1. DIMENTSION SEKTORIALA


Arteei eta Kultura Industriei buruzko 2009ko Estatistika sektore desberdinen jardueraren protagonistak diren 595 agenteen erolda oinarritzat hartuta egin da¹. Agenteen mapa orokorra hobeto irakurtzeko beharrezkoa da mapa hori osatzen duen sektore bakoitzaren ezaugarrietan arreta jartzea (ikus 1. eta 2. irudiak):

- *Arte eszenikoen* sektorea 98 programatzailek eta 59 ekoizlek osatzen dute. Programatzaile gisa aretoak (66) eta jaialdiak (32) zenbatzen dira. Ekoizleen kategoriak 50 antzerki-konpainia eta 9 dantza-konpainia biltzen ditu.
- *Liburuaren* sektoreak 144 agente biltzen ditu eta horietatik 106 liburu-dendak dira eta 38 argitaletxeak.
- *Musikaren* sektorea, 135 agenterekin, zuzeneko musikaren 107 agentek eta disko-industriaren 28 agentek osatzen dute. Zuzeneko musikaren agenteen artean, 64 programatzaile publiko, 22 sustatzaile pribatu, 18 kontzertu-areto eta 3 orkestra daude eta disko-industrian, 6 diskoetxe eta 22 disko-saltoki.
- *Ikusizko-arteetako* 88 ekoizleen eta erakusleren artean, 49 erakusketa-areto, 28 arte-galeria eta 11 produkzio-gune daude.
- *Ikus-entzunezkoen* sektoreko 71 agenterik dagokienez kontuan hartu behar da ekoizleak baino ez direla aztertu.

Termino orokorretan, argi dago agente erakusleak eta banatzaileak (% 68,9) nagusitzen direla agente ekoizleekiko (% 31,1) eta alde hori handiagoa izango litzateke emanaldi zinematografikorako aretoak kontuan hartu balira.

1. IRUDIA.

Agenteak, sektorearen arabera. Absolutuak eta ehunekoak. 2009.



¹ Kultura-sektore bakoitzeko estatistikaren berariazko argitalpenean eroldan sartzeko kontuan hartutako irzpidetako metodologikoak eta lan-eremuaren fitxa teknikoak deskribatzen dira.

2. IRUDIA.


Agenteak, sektorearen eta agente-tipologiaren arabera. 2009.

| Sektorea | Agente-tipologia | Maizt. | % |
|-------------------|-------------------------|------------|--------------|
| Arte eszenikoak | Ekoizlea | 59 | 9,9 |
| | Programatzailea | 98 | 16,5 |
| Liburua | Argitaletxea | 38 | 6,4 |
| | Liburu-denda | 106 | 17,8 |
| Musika | Orkestra | 3 | 0,5 |
| | Programatzaile publikoa | 64 | 10,8 |
| | Sustatzaile pribatua | 22 | 3,7 |
| | Kontzertu-aretoa | 18 | 3,0 |
| | Diskoetxea | 6 | 1,0 |
| | Disko-saltokiak | 22 | 3,7 |
| Ikusizko-arteak | Ekoizlea | 11 | 1,8 |
| | Erakusketa gela | 49 | 8,2 |
| | Arte-galeria | 28 | 4,7 |
| Ikus-entzunezkoak | Ekoizlea | 71 | 11,9 |
| Guztizkoa | | 595 | 100,0 |

Termino absolututan, diru-sarreraren eta gastuen balantze orokorra positiboa da, 14,3 milioi eurokoa, eta zenbateko hori diru-sarreraren % 3,1 da. Zenbakizko ikuspegitik begiratuta sektore bakoitzak duen pisua ez dator bat sektore bakoitzaren dimentsio ekonomikoarekin. Ikus-entzunezko industriak biltzen du bolumen ekonomiko handiena (diru-sarreraren % 45,6 eta guztizko gastuen % 46) nahiz eta agenteen % 11,9 soilik biltzen duen. Bestalde, agenteen % 26,4 biltzen duen arte eszenikoaren sektoreak guztizko diru-sarreraren eta gastuen % 12 biltzen du (ikus 3. irudia).

3. IRUDIA

Agenteen diru-sarrerak eta guztizko gastuak, sektorearen arabera. Milioi euroak eta ehunekoak. 2009.



Arlo pribatuen nagusitasuna duten tipologiaren irabazi-marjinak honako hauek dira: % 11,6 disko-saltokientzat, % 9,6 kontzertu-sustatzaile pribatuentzat, % 12,7 kontzertu-aretoentzat, % 5 inguru arte eszenikoen konpainientzat eta liburu-dendentzat eta % 2,3 ikus-entzunezkoentzat.

Hurrengo ataletan ikusiko den moduan, agente-tipologia desberdinetan tipologia bakoitzaren balantze ekonomikoan eragina duten asimetria nabarmenak gertatzen dira. Adibidez, disko-saltokien eta kontzertu-sustatzaile pribatuen kasuetan gertatzen diren irabazi nahiko handien arrazoia disko-saltoki handiek edo sustatzaile handiek sektore osoan duten pisua da. Horrela, sektore-agregazioak eragin handiena jasaten ari diren disko-saltoki txikien edo sustatzaile txikien egoera atzematea zailtzen du; lehenengoei musika merkaturatzeko euskarrien aldaketa sakonak eta kontsumorako sarbide-moduen aldaketek eragin diete eta bigarrenei, kontratazio publikoaren murrizketak.

Era berean, nabarmentzekoa da arte-galerien edo diskoetxeen moduko agente pribatuek galerak izatea urteko balantzean. Horrek agerian uzten du sektore horiek daukaten kolokako egoera.

Azkenik, garrantzitsua da honako hau adieraztea: arteen eta industriaren diru-sarreraren eta gastuen arteko nolabaiteko oreka globalaren arrazoia neurri handi batean aurrekontu ia erabat orekatuak aurkezten dituzten titulartasun publikoko agenteek hartzen duten pisu handian oinarritzen da.

4. IRUDIA


Diru-sarrerak, gastuak eta balantzea sektorearen eta agente-tipologiaren arabera. 2009.

| Sektorea | Agente-tipologia | Diru-sarrerak Milako eurotan | Gastuak Milako eurotan | Balantzea Milako eurotan | Guztizko diru-sarreraren gaineko ehunekoa |
|-------------------|-------------------------|--|----------------------------------|------------------------------------|--|
| Arte eszenikoak | ekoizlea | 12.492,8 | 11.867,6 | 625,2 | % 5,0 |
| | Programatzailea | 42.676,2 | 42.538,9 | 137,3 | % 0,3 |
| Liburua | Argitaletxea | 39.355,7 | 38.285,9 | 1.069,8 | % 2,7 |
| | Liburu-denda | 63.090,2 | 59.898,8 | 3.191,4 | % 5,1 |
| Musika | Orkestra | 19.491,1 | 19.231,5 | 259,6 | % 1,3 |
| | Programatzaile publikoa | 18.317,9 | 18.304,1 | 13,8 | % 0,1 |
| | Sustatzaile pribatua | 29.646,7 | 26.792,9 | 2.853,8 | % 9,6 |
| | Kontzertu-aretoa | 5.790,3 | 5.055,3 | 735,0 | % 12,7 |
| | Diskoetxea | 2.049,6 | 2.068,3 | -18,7 | % -0,9 |
| | Disko-saltokiak | 7.263,4 | 6.421,1 | 842,3 | % 11,6 |
| Ikusizko-arteak | ekoizlea | 5.113,6 | 5.096,1 | 17,5 | % 0,3 |
| | Erakusketa gela | 4.500,2 | 4.473,3 | 26,9 | % 0,6 |
| | Arte-galeria | 2.029,4 | 2.326,6 | -297,2 | % -14,6 |
| Ikus-entzunezkoak | ekoizlea | 211.399,4 | 206.575,7 | 4.823,7 | % 2,3 |
| Guztizkoa | | 463.216,5 | 448.936,1 | 14.280,4 | % 3,1 |

Kultura agenteen artean guztira 3.177,2 langile² zenbatu dira. Sektore bakoitzeko langileek langileen guztizkoan duten pisuaren banaketa pisu ekonomikoaren banaketaren antzekoa da. Ikus-entzunezkoen sektorea da langileen ehuneko handiena metatzen duena (% 43); aldiz, gainerako sektoreetako banaketa (musika, liburua eta arte eszenikoak) % 17-% 19 tartean kokatzen da eta ikusizko-arten sektorea da enplegu gutxiena metatzen duena (% 3,7) —ikus 5. eta 6. irudia—.

5. IRUDIA

Langileak sektorearen arabera. Urteko lanaldi osoko langile baliokideak. Datu absolutuak eta ehunekoak. 2009.



6. IRUDIA

Langileak, sektoreko agenteen arabera. Urteko lanaldi osoko langile baliokideak. 2009.

| Sektorea | Agente-tipologia | Langileak | Langileak ehunekotan |
|-------------------|-------------------------|----------------|----------------------|
| Arte eszenikoak | Ekoizlea | 236,8 | 7,5 |
| | Programatzailea | 315,7 | 9,9 |
| Liburua | Argitaletxea | 210,6 | 6,6 |
| | Liburu-denda | 340,1 | 10,7 |
| Musika | Orkestra | 211,0 | 6,6 |
| | Programatzaile publikoa | 91,4 | 2,9 |
| | Sustatzaile pribatua | 168,4 | 5,3 |
| | Kontzertu-aretoa | 68,2 | 2,1 |
| | Diskoetxea | 15,5 | 0,5 |
| | Disko-saltokiak | 36,7 | 1,2 |
| Ikusizko-arteak | Ekoizlea | 32,5 | 1,0 |
| | Erakusketa gela | 36,9 | 1,2 |
| | Arte-galeria | 46,2 | 1,5 |
| Ikus-entzunezkoak | Ekoizlea | 1.367,2 | 43,0 |
| Guztizkoa | | 3.177,2 | 100,0 |

² Txosten osoan langile kopuruari buruzko erreferentzia egiten denean urtebetean lanaldi osoan lan egiten duten langile kopuruari dagokio.


2. TITULARTASUNA

Hiru titulartasun hartu dira kontuan: titulartasun publikoko agenteak nagusiki Administrazio Publikoek partaidetutako erakunde guztiak dira (edozein motatako izaera juridikorekin); titulartasun pribatua enpresa-izaera eta irabazi-asmoa duten jarduerako agenteei dagokie eta azkenik, elkarteak eta fundazioak irabazi-asmorik gabeko erakunde pribatuak dira.

Estatistika osatzen duten 10 agentetatik ia 6 agente pribatuak dira: titulartasun pribatua nagusitzen den hainbat agenteren (liburu-dendak, ikus-entzunezko ekoizleak eta arte eszenikoetako ekoizleak) kopuru handia da horren arrazoia (ikus 7. irudia).

7. IRUDIA

Agenteak, titulartasunaren arabera. Datu absolutuak eta ehunekoak. 2009.



Titulartasunen banaketa ikusiz egiazta daiteke EAEko kultura-agenteen izaeran desberdintasun handiak daudela: liburu-denden, diskoetxeen, disko-saltokien, kontzertu-aretoen, kontzertu-sustatzaileen eta arte-galerien kasuan, agente guztien titulartasuna pribatua da; arte eszenikoetako ekoizleen, argitaletxeen eta ikus-entzunezko ekoizleen kasuan agente pribatuak nagusitzen dira, agente publikoak, elkarteak eta fundazioak salbuetsita; arte eszenikoen eta musika programatzaileen eta ikusizko-arteak erakusteko zentrozen kasuan agente publikoak nagusitzen dira nahiz eta elkarteak eta fundazioak ere hor biltzen diren, eta azkenik, ikusizko-artearen ekoizleen kasuan, agente publikoek, elkarteek eta fundazioek partekatzen dute protagonismoa (ikus 8. irudia).

Agente pribatuen nagusitasuna ez da hain argi islatzen diru-sarreraren eta gastuen banaketan. Ikuspegi ekonomikotik elkarteek eta fundazioek aztertutako kultura-agente guztietan duten eragina ere ikusten da (ikus 9. irudia).

Enpleguaren ikuspegitik, liburuaren industriaren eta ikus-entzunezko ekoizpenaren sektoreek sortzen duten okupazio-bolumen handiak eragiten du guztizko enpleguaren erdia baino gehiago titulartasun pribatuko agenteetan biltzea, zehazki, urteko lanaldi osoko 1.762 enplegu eta, aldiz, administrazio publikoetan 1.208,6 enplegu eta elkarte eta fundazioetan 102,6 enplegu (ikus 10. irudia).


8. IRUDIA

Agenteak, sektorearen, agente-tipologiaren eta titulartasunaren arabera. 2009.

| Sektorea | Agente-tipologia | Agenteak Maizt. | Publikoa % | Pribatua % | Elkarteak eta fundazioak % | Guztizkoa % |
|-------------------|-------------------------|-----------------|-------------|-------------|----------------------------|--------------|
| Arte eszenikoak | Ekoizlea | 59 | 1,7 | 86,4 | 11,9 | 100,0 |
| | Programatzailea | 98 | 81,6 | 4,1 | 14,3 | 100,0 |
| Liburua | Argitaletxea | 38 | - | 92,1 | 7,9 | 100,0 |
| | Liburu-denda | 106 | - | 100,0 | - | 100,0 |
| Musika | Orkestra | 3 | 100,0 | 0,0 | 0,0 | 100,0 |
| | Programatzaile publikoa | 64 | 100,0 | - | - | 100,0 |
| | Sustatzaile pribatua | 22 | - | 68,2 | 31,8 | 100,0 |
| | Kontzertu-aretoa | 18 | 0,0 | 88,9 | 11,1 | 100,0 |
| | Diskoetxea | 6 | - | 100,0 | - | 100,0 |
| | Disko-saltokiak | 22 | - | 100,0 | - | 100,0 |
| Ikusizko-arteak | Ekoizlea | 11 | 45,5 | 0,0 | 54,5 | 100,0 |
| | Erakusketa gela | 49 | 85,7 | 0,0 | 14,3 | 100,0 |
| | Arte-galeria | 28 | - | 100,0 | - | 100,0 |
| Ikus-entzunezkoak | Ekoizlea | 71 | 1,4 | 97,2 | 1,4 | 100,0 |
| Guztizkoa | | 595 | 32,9 | 59,2 | 7,9 | 100,0 |


9. IRUDIA

Guztizko diru-sarrerak eta gastuak, titulartasunaren arabera. Milioi euroak eta ehunekoak. 2009.



10. IRUDIA

Langileak, titulartasunaren arabera. Urteko lanaldi osoko langile baliokideak. Datu absolutuak eta ehunekoak. 2009.




3. LURRALDEA

EAEko kultura-agenteen lurralde-banaketak egituratzen duen mapan Bizkaian biltzen dira agenteen erdiak, Gipuzkoan % 38,5 eta Araban % 11,4. 100.000 biztanleko agente-ratioa kalkulatu alderaketa hobea egitea ahalbidetzen duten datuak lortzen dira. Ratioak honako hauek dira: Gipuzkoan, 32,5, Bizkaian, 25,9 eta Araban, 21,7 (ikus 11. irudia).

Hiriburuetakoko metaketari erreparatuz, Bizkaian eta Gipuzkoan agenteak hiriburuetan eta gainerako udalerrietan banatuta daude (% 44,6 Bilbon; % 42,8 Donostian). Araban, aldiz, bere lurralde-konfigurazioa dela-eta, agenteen % 67,6 Gasteizen biltzen da (ikus 12. irudia).


11. IRUDIA

Agenteak, lurralde historikoaren arabera. Datu absolutuak, ehunekoak eta 100.000 biztanleko agente-ratioa. 2009.



12. IRUDIA


Agenteak, hiriburuko kokapenaren eta lurralde historikoaren arabera. Ehunekoak. 2009.



Bestalde, termino ekonomikoak kontuan hartzen badira, Bizkaia nabarmentzen da bolumen ekonomikoaren % 70,5 biltzen duelako. Lurralde horretan kokatzen dira pisu ekonomiko handiena duten sektoreetako (ikus-entzunezkoak, liburuaren industria, arte eszenikoaren programatzaileak eta musika-sustatzaileak) agente nagusiak. Horren ondorioz, kultura arloko 10 enplegutatik 6 Bizkaian kokatzen dira, Gipuzkoakoak bikoiztuz (1.972,5 enplegu batean eta 972,6 enplegu bestean). Agente kopuruaren pisu erlatiboaren eta kultura-enpleguaren arteko erlazioa kontuan hartuta, Gipuzkoako eta Arabako enpresen dimentsioa txikia da: % 38,5 agente eta % 30,6 enplegu Gipuzkoan eta % 11,4 agente eta % 7,3 enplegu Araban (ikus 13. irudia).

13. IRUDIA

Agenteen diru-sarrerak eta enplegua, lurralde historikoaren arabera.
Miloi euroak eta ehunekoak. 2009.



4. AGENTEEN PROFILAK

ARTE ESZENIKOETAKO EKOIZLEAK

Arte eszenikoetako ekoizle gehienak (% 89,9) Bizkaian eta Gipuzkoan biltzen dira eta hain zuzen ere bi lurralde horiek dituzte 100.000 biztanleko ekoizle-ratio handienak. Horrela, ratioa handiagoa da Gipuzkoan (3,8 arte eszenikoaren ekoizle 100.000 biztanleko) Bizkaian 2,3 da eta Araban, 1,9.


Jarduera ere bat dator lurraldeko agente-bolumenaren banaketarekin: Bizkaian egin dira ikuskizunen % 46,4, Gipuzkoan % 41,8 eta Araban % 11,8. Nolanahi ere, nahiz eta Araban dagoen agente kopuru txikiena eta ondorioz, baita jarduera-maila txikiena ere, Arabako ikuskizunen ratioa Bizkaikoaren oso antzekoa da, ratorik handiena Gipuzkoakoa izanik (6,5) —ikus 14. irudia—.

EAEko arte eszenikoetako ekoizleen erdiek 100.000 eurotik beherako diru-sarrerak izan dituzte, % 27,1ek 100.000-250.000 eurokoak eta gainerako % 22,1ek 250.000 eurotik gorakoak. Diru-sarreraren mailaren hierarkia hori agente-talde bakoitzak biltzen dituen diru-sarreraren ehunekoarekiko alderantzizko proportzioan ematen da eta, beraz, 500.000 eurotik gorako diru-sarrerak dituen gutxiengoak (% 10,2) sektore osoak sortzen dituen diru-sarreraren ia erdia biltzen du —ikus 15. irudia—.

Enplegu ehunekoari dagokionez, diru-sarrera handienak dituzten ekoizleen % 10,2k biltzen du langileen % 32,2 eta aldi berean, 100.000 eurotik beherako diru-sarrerak dituzten agenteen % 50,8an biltzen dira langileen % 27,2. Horren arrazoi nagusia honako hau da: diru-sarreraren bolumen handienak dituzten ekoizleek diru-sarreraren bolumen txikiagoak dituzten agenteek baino egitura handiagoak dituzte (12,7 langileko batez bestekoa), azken horien egiturak askoz txikiagoak baitira (2,2 langileko batez bestekoa).

14. IRUDIA

Arte eszenikoetako ekoizleak eta jarduerak, lurralde historikoaren arabera. Ehunekoak eta 100.000 biztanleko agente-ratioa. 2009.



16. irudian arte eszenikoetako ekoizleek dituzten langile-egitura mota ohikoenak ageri dira: % 40,7k 3 langiletik beherako langile-egiturak ditu, beste % 40,7k 3-5 bitarteko langile-egiturak ditu eta soilik gainerako % 18,6k ditu 5 langiletik gorako langile-egiturak —ikus 16. irudia—.

15. IRUDIA

Arte eszenikoetako ekoizleak, diru-sarreraren arabera. 2009.

| | Agenteak | | Diru-sarrerak | Urteko lanaldi osoko langile baliokideak | |
|--------------------------|-----------|--------------|---------------|--|----------------|
| | Maizt. | % | % | % | Batez bestekoa |
| 500.000 € baino gehiago | 6 | 10,2 | 46,5 | 32,2 | 12,7 |
| 250.001-500.000 € | 7 | 11,9 | 20,7 | 14,1 | 4,8 |
| 100.000-250.000 € | 16 | 27,1 | 21,5 | 26,5 | 3,9 |
| 100.000 € baino gutxiago | 30 | 50,8 | 11,3 | 27,2 | 2,2 |
| Guztizkoa | 59 | 100,0 | 100,0 | 100,0 | 4,0 |

16. IRUDIA

Arte eszenikoetako ekoizleak, urteko lanaldi osoko langile baliokideen kopuruaren arabera. 2009.

| | Maizt. | % |
|--------------------------|-----------|--------------|
| 5 langile baino gehiago | 11 | 18,6 |
| 3-5 langile | 24 | 40,7 |
| 3 langile baino gutxiago | 24 | 40,7 |
| Guztizkoa | 59 | 100,0 |

ARTE ESZENIKOETAKO PROGRAMATZAILEAK

Bizkaian biltzen dira arte eszenikoetako programatzaileen % 46,9, Gipuzkoan % 39,8 eta Araban % 13,3. Alabaina, Gipuzkoa da 100.000 biztanleko programatzaile-ratio handiena (5,5) duen lurraldea.

2009an EAEn egin diren arte eszenikoetako emanaldien erdiak Bizkaian egin dira, nahiz eta Bizkaia den hain zuzen ere biztanleko emanaldi-ratio txikiena duen lurraldea (168,3) —ikus 17. irudia—.


Arte eszenikoak programatzen dituzten aretoen % 78,8k 250.000 eurotik beherako diru-sarrerak ditu, % 15,1ek 250.000-1.000.000 eurokoak eta soilik % 6,1ek ditu milioi bat eurotik gorako diru-sarrerak. Nolanahi ere, % 6,1 horrek biltzen du hain zuzen diru-sarreraren % 64,2 eta ikusleen % 49,7.

Era berean, ikusleen banaketari dagokionez, areto programatzaileen % 59,1ek 5.000 ikusletik behera izan ditu 2009an eta % 22,7k 5.000-10.000 ikusle izan ditu (ikus 18. eta 19. irudia).

Diru-sarreraren arabera jaialdien banaketa areto programatzaileena baino parekatuagoa da; horrela, % 43,8k 100.000 eurotik beherako diru-sarrerak ditu, % 31,3k 100.000-250.000 eurokoak eta gainerako % 25ek 250.000 eurotik gorakoak (ikus 20. irudia).

17. IRUDIA

Arte eszenikoetako programatzaileak eta jarduerak, lurralde historikoaren arabera. Ehunekoak eta 100.000 biztanleko agente-ratioa. 2009.



18. IRUDIA

Arte eszenikoak programatzen dituzten aretoak, diru-sarreraren eta ikusleen arabera. 2009.

| | Agenteak | | Diru-sarrerak | Ikusleak |
|---------------------------|-----------|--------------|---------------|--------------|
| | Maizt. | % | % | % |
| 1.000.000 € baino gehiago | 4 | 6,1 | 64,2 | 49,7 |
| 500.001-1.000.000 € | 3 | 4,5 | 7,7 | 8,4 |
| 250.001-500.000 € | 7 | 10,6 | 9,1 | 13,4 |
| 100.000-250.000 € | 21 | 31,8 | 12,1 | 16,0 |
| 100.000 € baino gutxiago | 31 | 47,0 | 6,9 | 12,5 |
| Guztizkoa | 66 | 100,0 | 100,0 | 100,0 |

19. IRUDIA

Arte eszenikoak programatzen dituzten aretoak, bertaratutako ikusle-tarteen arabera. 2009.

| | Maizt. | % |
|-----------------------------|-----------|--------------|
| 30.001 ikusle baino gehiago | 6 | 9,1 |
| 10.001-30.000 ikusle | 6 | 9,1 |
| 5.000-10.000 ikusle | 15 | 22,7 |
| 5.000 ikusle baino gutxiago | 39 | 59,1 |
| Guztizkoa | 66 | 100,0 |

20. IRUDIA

Arte eszenikoetako jaialdiak, diru-sarreraren tarteen arabera. 2009.

| | Agenteak | | Diru-sarrerak |
|--------------------------|-----------|--------------|---------------|
| | Maizt. | % | % |
| 250.000 € baino gehiago | 8 | 25,0 | 83,7 |
| 100.000-250.000 € | 10 | 31,3 | 11,9 |
| 100.000 € baino gutxiago | 14 | 43,8 | 4,4 |
| Guztizkoa | 32 | 100,0 | 100,0 |

ARGIALETXEAK


Argialetxe gehienak Bizkaian (% 47,4) eta Gipuzkoan (% 44,7) daude eta 100.000 biztanleko ratioari dagokionez, Gipuzkoari dagokio zenbakirik handiena, 2,4.

Gipuzkoa da nobedade gisa argitaratutako aleen kopururik handiena argitaratzen duen lurralde historikoa, guztizkoaren % 67, eta gainera, Gipuzkoako 100.000 biztanleko ratioa gainerako lurraldeena baino handiagoa da. Hortaz, esan daiteke Gipuzkoan kokatutako argialetxeek gainerako lurraldeetan kokatutakoek baino jarduera-maila handiagoa dutela (ikus 21. irudia).

Diru-sarreraren arabera egindako argialetxeen banaketak erakusten du badagoela tamaina txikiko argialetxez osatutako oinarri bat (100.000 euroko diru-sarrerak baino txikiagoak eta 1,5 langileko batez bestekoa), beste muturrean, tamaina handiagoko argialetxeen taldea (1.000.000 euroko diru-sarrerak baino handiagoak eta 11,1 langileko batez bestekoa) eta erdiko tarteetan ez dagoela hainbesteko agente-pilaketa (ikus 22. irudia).

21. IRUDIA

Argialetxeak eta jarduera, lurralde historikoaren arabera. Ehunekoak eta 100.000 biztanleko agente-ratioa. 2009.



22. IRUDIA

Argialetxeak, diru-sarreraren arabera, liburu-salmentagatiko diru-sarreraren arabera eta langileen arabera. 2009.

| | Agenteak | | Diru-sarreraren % salmentagatik guztizko diru-sarrereriko | Urteko lanaldi osoko langile baliokideak | |
|---------------------------|-----------|--------------|---|--|----------------|
| | Maizt. | % | % | % | Batez bestekoa |
| 1.000.000 € baino gehiago | 12 | 31,6 | 89,8 | 63,4 | 11,1 |
| 500.001-1.000.000 € | 6 | 15,8 | 74,4 | 14,3 | 5,0 |
| 250.001-500.000 € | 3 | 7,9 | 81,6 | 7,8 | 5,4 |
| 100.000-250.000 € | 5 | 13,2 | 72,0 | 5,8 | 2,5 |
| 100.000 € baino gutxiago | 12 | 31,6 | 73,3 | 8,7 | 1,5 |
| Guztizkoa | 38 | 100,0 | 79,2 | 100,0 | 5,5 |

LIBURU-DENDAK

Bizkaian biltzen da liburu-denden % 62,3, hau da, Gipuzkoako ehunekoa (% 27,4) eta Arabako ehunekoa (% 10,4) baino askoz ehuneko handiagoa eta aldi berean, Bizkaiak du 100.000 biztanleko liburu-denda kopuru handiena (5,7), Gipuzkoakoarekin (4,1) eta Arabakoarekin (3,5) alderatzen bada.

Berriz ere, lurralde bakoitzeko jarduera-maila lurralde bakoitzeko agente-kopuruari lotzen zaio. Horrela, Bizkaian saldu dira liburuen % 57,1, Gipuzkoan % 29 eta Araban gainerako % 14. 100.000 biztanleko saldutako liburu kopuruari dagokionez, nabarmentzekoa da Arabak Gipuzkoak baino ratio handiagoa duela nahiz eta liburu-denda kopuru txikiagoa izan (ikus 23. irudia).


Profilen azterketa egiteko beharrezkoa da kateetako zati diren liburu-dendak (gutzizkoaren % 20,8) eta liburu-denda independenteak (% 79,2) bereiztea; izan ere, lehenengoen, askoz gutxiago badira ere, diru-sarreraren erdia baino gehiago biltzen dute tamaina handiagoko egiturak dituztelako (langileen batez bestekoa, 7,1 eta liburu-denda independenteen kasuan, 2,2).

Kateetako zati diren liburu-dendek bolumen handiagoa dutela egiaztatzeko beste datu bat: milioi bat euro baino gehiagoko diru-sarrerak dituzten liburu-denden % 81,3 kateetako zati diren liburu-dendak dira eta aldiz, 250.000 euro baino gutxiagoko diru-sarrerak dituzten liburu-denda guztiak independenteak dira.

Azkenik, nabarmentzekoa da diru-sarrera txikiak dituzten liburu-dendak direla liburu-salmentagatiko diru-sarreraren ehuneko txikiena dutenak gutzizko diru-sarreretik eta aldiz, diru-sarreraren bolumen handieneko liburu-denden diru-sarreraren % 90 zuzenean liburu-salmentatik dator (ikus 24. eta 25. irudia).

23. IRUDIA

Liburu-dendak eta jarduera, lurralde historikoaren arabera. Ehunekoak eta 100.000 biztanleko agente-ratioa. 2009.



24. IRUDIA

Liburu-denden tipologia, liburu-salmentagatiko diru-sarreraren arabera eta urteko lanaldi osoko langile baliokideen arabera. 2009.

| | Agenteak | | Liburu-salmentagatiko diru-sarrerak | Urteko lanaldi osoko langile baliokideak | |
|------------------------------------|------------|--------------|-------------------------------------|--|----------------|
| | Maizt. | % | % | % | Batez bestekoa |
| Kateetako zati diren liburu-dendak | 22 | 20,8 | 55,2 | 45,7 | 7,1 |
| Liburu-denda independenteak | 84 | 79,2 | 44,8 | 54,3 | 2,2 |
| Gutzizkoa | 106 | 100,0 | 100,0 | 100,0 | 3,2 |

25. IRUDIA

Liburu-dendak, diru-sarreraren arabera, liburu-dendaren tipologiaren arabera eta liburu-salmentagatiko diru-sarreraren arabera. 2009.

| | Agenteak | | Kateetako zati diren liburu-dendak | Liburu-denda independenteak | Diru-sarreraren % salmentagatik guztizko diru-sarrereriko |
|---------------------------|------------|--------------|------------------------------------|-----------------------------|---|
| | Maizt. | % | % | % | % |
| 1.000.000 € baino gehiago | 16 | 15,1 | 81,3 | 18, | 92,3 |
| 500.001-1.000.000 € | 11 | 10,4 | 27,3 | 72,7 | 90,1 |
| 250.001-500.000 € | 24 | 22,6 | 25,0 | 75,0 | 91,3 |
| 100.000-250.000 € | 21 | 19,8 | 0,0 | 100,0 | 73,3 |
| 100.000 € baino gutxiago | 34 | 32,1 | 0,0 | 100,0 | 63,2 |
| Gutzizkoa | 106 | 100,0 | 20,8 | 79,2 | 78,7 |

MUSIKA-PROGRAMATZAILEAK

Bizkaia da musika-programatzaileen kopururik handiena biltzen duen lurralde historikoa. Alabaina, kontzertu-aretoen kasuan ikusten da alde nabarmenena: Bizkaian biltzen da agenteen % 50, Araban % 27,8 eta Gipuzkoan gainerako % 22,2. Araba da 100.000 biztanleko kontzertu-aretoen ratorik handiena (1,6) duen lurralde historikoa.


Musika-programatzaile publikoei dagokienez, agente guztien ia % 95 Bizkaian (% 48,4) eta Gipuzkoan (% 46,2) daude.

Erlazio zuzena dago Bizkaian gertatzen den musika-programatzaileen metaketa handiagoaren eta lurralde horretan programatutako kontzertu kopuruaren artean. Horrela, Bizkaian programatu dira kontzertu guztien % 52,7. Nolanahi ere, 2009an kontzertu kopururik handiena Bizkaian programatu da baina 100.000 biztanleko ratioa handiagoa da Gipuzkoan (263,6) —ikus 26. irudia—.

Musika-programatzaile publikoen % 10 baino gutxiagok dituzte urteko 1.000.000 eurotik gorako diru-sarrerak, nahiz eta sektore horretan bildu diru-sarrera guztien % 59,4. Beste muturrean daude 100.000 eurotik beherako diru-sarrerak dituzten programatzaileak; agente guztien erdia baino gehiago dira (% 53,1) baina horien diru-sarrerak guztizkoaren % 9,6 dira.

26. IRUDIA

Musika-programatzaileak eta jarduera, agente-tipologiaren arabera eta lurralde historikoaren arabera. Ehunekoak eta 100.000 biztanleko agente-ratioa. 2009.



Ikusleen ehunekoari dagokionez, agenteen % 15,6k (250.000 eurotik gorako diru-sarrerekin) 2009an EAEn programatutako kontzertuetara bertaratu diren ikusleen % 63,4 biltzen du (ikus 27. eta 28. irudiak).

EAEko sustatzaile pribatuen % 31,8k 500.000 eurotik gorako diru-sarrerak ditu eta agente-tipologia horrek sortutako guztizko diru-sarreraren % 93,8 biltzen du (ikus 29. irudia).

EAEko kontzertu-aretoen % 44,4k 100.000 eurotik beherako diru-sarrerak ditu baina agente-tipologia horrek sortutako guztizko diru-sarreraren % 2,9 eta ikusleen % 16,9 soilik biltzen du. Bestalde, 500.000 eurotik gorako diru-sarrerak dituzten aretoak guztizko agenteen % 16,7 dira baina guztizko diru-sarreraren % 74,1 eta ikusleen % 45,4 biltzen dituzte (ikus 30. irudia).

27. IRUDIA

Programatzaile publikoak, diru-sarreraren tarteen arabera, guztizkoarekiko diru-sarreraren ehunekoaren arabera eta ikusleen arabera. 2009.

| | Agenteak | | Diru-sarrerak % | Ikusleak % |
|---------------------------|-----------|--------------|--------------------|---------------|
| | Maizt. | % | | |
| 1.000.000 € baino gehiago | 5 | 7,8 | 59,4 | 31,0 |
| 250.001-1.000.000 € | 5 | 7,8 | 11,8 | 32,4 |
| 100.000-250.000 € | 20 | 31,3 | 19,1 | 25,3 |
| 100.000 € baino gutxiago | 34 | 53,1 | 9,6 | 11,4 |
| Gutzizkoa | 64 | 100,0 | 100,0 | 100,0 |

28. IRUDIA

Programatzaile publikoak, ikusleen arabera eta guztizkoarekiko ikusleen ehunekoaren arabera. 2009.

| | Agenteak | | Ikusleak % |
|------------------------------|-----------|--------------|---------------|
| | Maizt. | % | |
| 100.000 ikusle baino gehiago | 3 | 4,7 | 41,9 |
| 50.001-100.000 ikusle | 3 | 4,7 | 14,9 |
| 10.001-50.000 ikusle | 18 | 28,1 | 29,5 |
| 5.000-10.000 ikusle | 11 | 17,2 | 7,5 |
| 5.000 ikusle baino gutxiago | 29 | 45,3 | 6,3 |
| Gutzizkoa | 64 | 100,0 | 41,9 |

29. IRUDIA

Sustatzaile pribatuak, diru-sarreraren tarteen eta metatutako diru sarreraren ehunekoaren arabera. 2009.

| | Agenteak | | Diru-sarrerak % |
|--------------------------|-----------|--------------|--------------------|
| | Maizt. | % | |
| 500.000 € baino gehiago | 7 | 31,8 | 93,8 |
| 100.000-500.000 € | 11 | 50,0 | 5,8 |
| 100.000 € baino gutxiago | 4 | 18,2 | 0,4 |
| Gutzizkoa | 22 | 100,0 | 100,0 |

30. IRUDIA

Kontzertu-aretoak, diru sarreraren tarteen, metatutako diru-sarreraren ehunekoaren eta guztizko ikusleen ehunekoaren arabera. 2009.

| | Agenteak | | Diru-sarrerak % | Ikusleak % |
|--------------------------|-----------|--------------|--------------------|---------------|
| | Maizt. | % | | |
| 500.000 € baino gehiago | 3 | 16,7 | 74,1 | 45,4 |
| 250.001-500.000 € | 0 | 0 | 0 | 0 |
| 100.000-250.000 € | 7 | 38,9 | 23,0 | 37,8 |
| 100.000 € baino gutxiago | 8 | 44,4 | 2,9 | 16,9 |
| Gutzizkoa | 18 | 100,0 | 100,0 | 100,0 |

EAEan dauden 18 kontzertu-aretoen % 38,9k 2009an 5.000 ikusle baino gutxiago izan ditu, % 38,9k 5.000-10.000 ikusle izan ditu eta gainerako % 22,3k 10.000 ikusle baino gehiago izan ditu. Azken ehuneko horretan biltzen da agente-tipologia mota horretako kontzertuetara bertaraten diren guztizko ikusleen erdia baino gehiago (ikus 31. irudia).

31. IRUDIA
Kontzertu-aretoak, ikusle-tarte eta guztizko ikusleen ehunekoaren arabera. 2009.


| | Agenteak | | Ikusleak % |
|-----------------------------|-----------|--------------|---------------|
| | Maizt. | % | |
| 10.000 ikusle baino gehiago | 4 | 22,3 | 56,4 |
| 5.000-10.000 ikusle | 7 | 38,9 | 29,4 |
| 5.000 ikusle baino gutxiago | 7 | 38,9 | 14,2 |
| Guztizkoa | 18 | 100,0 | 100,0 |

INDUSTRIA DISKOGRAFIKOA

EAEko diskoetxeen % 66,7 Bizkaian dago eta gainerako % 33,3 Gipuzkoan (ikus 32. irudia).

300.000 eurotik gorako eta 300.000 eurotik beherako diru-sarrerak dituzten EAEko diskoetxeak modu parekatuan banatuta daude. Diru-sarreraren bolumen handieneko diskoetxeek guztizko diru-sarreraren ia % 75 biltzen dute (ikus 33. irudia).

32. IRUDIA
Diskoetxeak, lurralde historikoaren arabera. Ehunekoak eta 100.000 biztanleko agente-ratioa. 2009.



EAEko guztizkoa 6
(Ratioa 0,3)

33. IRUDIA

Diskoetxeak, diru-sarreraren eta langileen kopien arabera. 2009.

| | Agenteak | | Diru-sarrerak | Urteko lanaldi osoko langile baliokideak | |
|--------------------------|----------|--------------|---------------|--|----------------|
| | Maizt. | % | % | % | Batez bestekoa |
| 300.000 € baino gehiago | 3 | 50,0 | 74,2 | 61,3 | 3,2 |
| 300.000 € baino gutxiago | 3 | 50,0 | 25,8 | 38,7 | 2,0 |
| Gutzizkoa | 6 | 100,0 | 100,0 | 100,0 | 2,6 |


DISKO-SALTOKIAK

Disko-saltokien erdiak Bizkaian daude, % 40,9 Gipuzkoan eta gainerako % 9,1 Araban (ikus 34. irudia).

EAEen disko-saltoki independenteak (% 45,5) baino kateetako zati diren disko-saltoki kopuru handiagoa dago (% 54,5) eta gainera azken horiek guztizko diru-sarreraren % 89,6 eta enpleguaren % 70 biltzen dute.

250.000 eurotik gorako diru-sarrerak dituzten disko-saltoki guztiak kateren bateko zati dira eta aldiz, 100.000 eurotik beherako diru-sarrerak dituzten saltokietatik (45,5%), % 80 independenteak dira (ikus 35. eta 36. irudia).

34. IRUDIA

Disko-saltokiak lurralde historikoaren arabera. Ehunekoak eta 100.000 biztanleko agente-ratioa. 2009.

EAEko guztizkoa 22

(Ratioa 1,0)

35. IRUDIA

Agenteen, diru-sarreraren eta langileen banaketa, disko-saltokiaren tipologiaren arabera. 2009.

| | Agenteak | | Diru-sarrerak | Urteko lanaldi osoko langile baliokideak | |
|--------------------------------------|-----------|--------------|---------------|--|----------------|
| | Maizt. | % | % | % | Batez bestekoa |
| Kateetako zati diren disko-saltokiak | 12 | 54,5 | 89,6 | 70,0 | 2,1 |
| Disko-saltoki independenteak | 10 | 45,5 | 10,4 | 30,0 | 1,1 |
| Guztizkoa | 22 | 100,0 | 100,0 | 100,0 | 1,7 |

36. IRUDIA

Disko-saltokiak, diru-sarreraren tartean eta saltoki-tipologiaren arabera. 2009.

| | Agenteak | | Kateetako zati diren disko-saltokiak | Disko-saltokiak |
|--------------------------|-----------|--------------|--------------------------------------|-----------------|
| | Maizt. | % | % | % |
| 250.000 € baino gehiago | 4 | 18,2 | 100,0 | 0,0 |
| 100.000-250.000 € | 8 | 36,4 | 75,0 | 25,0 |
| 100.000 € baino gutxiago | 10 | 45,5 | 20,0 | 80,0 |
| Guztizkoa | 22 | 100,0 | 54,5 | 45,5 |

IKUSIZKO-ARTEAK PRODUZITZEKO ETA ERAKUSTEKO ZENTROAK

Ikusizko-arteak eta galeriak erakusteko zentroi dagokienez, Bizkaia da agente kopuru handiena biltzen duen lurraldea baina aldi berean, ikusizko-arten ekoizleen ehuneko txikiena duen lurraldea da. Bestalde, azpimarratzekoa da beste bi lurraldeekiko Bizkaian dagoen arte galeria ugartasuna (% 67,9).

EAEan antolatutako erakusketen erdiak baino gehiago Bizkaian egin dira, % 31,5 Gipuzkoan eta gainerako % 15,8 Araban. Aldiz, Araba da 100.000 biztanleko erakusketa-ratio handiena (44) duen lurraldea (ikus 37. irudia).

Galerien % 85,7k 100.000 eurotik beherako diru-sarrerak ditu, guztizko diru-sarreraren % 54,3 eta enpleguaren % 71,8 bilduz.


Beste muturrean dago 100.000 eurotik gorako diru-sarrerak dituzten gainerako galerien % 14,3; horiek diru-sarreraren % 45,7 sortzen dute eta enpleguaren % 28,2 biltzen dute (ikus 38. irudia).

Ikusizko-arteak erakusteko zentroen % 87,8k 100.000 eurotik beherako diru-sarrerak ditu eta % 8,2k 500.000 eurotik gorakoak; alabaina, azken horiek biltzen dituzte mota horretako zentroek sortutako diru-sarreraren % 63,1 (ikus 39. irudia).

Ikusizko-arten ekoizleen % 36,4k 500.000 eurotik gorako diru-sarrerak ditu baina diru-sarreraren % 92,9 eta enpleguaren % 77,3 biltzen dituzte (ikus 40. irudia).

37. IRUDIA

Ikusizko-arteak ekoizteko eta erakusteko zentroak eta jarduera, agente-tipologiaren eta lurralde historikoaren arabera. Ehunekoak eta 100.000 biztanleko agente-ratioa. 2009.



38. IRUDIA

Galeriak, diru-sarreraren tarteen, guztikoarekiko diru-sarreraren eta langileen arabera. 2009.

| | Agenteak | | Salmentengatiko diru-sarrerak | Urteko lanaldi osoko langile baliokideak | |
|--------------------------|-----------|--------------|-------------------------------|--|----------------|
| | Maizt. | % | % | % | Batez bestekoa |
| 100.000 € baino gehiago | 4 | 14,3 | 45,7 | 28,2 | 3,3 |
| 100.000 € baino gutxiago | 24 | 85,7 | 54,3 | 71,8 | 1,4 |
| Guztizkoa | 28 | 100,0 | 100,0 | 100,0 | 1,6 |

39. IRUDIA

Ikusizko-arteak erakusteko zentroak, diru-sarreraren arabera. 2009.

| | Agenteak | | Diru-sarrerak |
|--------------------------|-----------|--------------|---------------|
| | Maizt. | % | % |
| 500.000 € baino gehiago | 4 | 8,2 | 63,1 |
| 100.001-500.000 € | 2 | 4,1 | 8,7 |
| 100.000 € baino gutxiago | 43 | 87,8 | 28,2 |
| Guztizkoa | 49 | 100,0 | 100,0 |

40. IRUDIA

Ikusizko-arteek ekoizleak, diru-sarreraren eta langileen arabera. 2009.

| | Agenteak | | Diru-sarrerak | Urteko lanaldi osoko langile baliokideak | |
|--------------------------|-----------|--------------|---------------|--|----------------|
| | Maizt. | % | % | % | Batez bestekoa |
| 500.000 € baino gehiago | 4 | 36,4 | 92,9 | 77,3 | 6,3 |
| 250.000 € baino gutxiago | 7 | 63,6 | 7,1 | 22,7 | 1,1 |
| Guztizkoa | 11 | 100,0 | 100,0 | 100,0 | 3,0 |


IKUS-ENTZUNEZKO INDUSTRIA

EAEko ikus-entzunezko ekoizpen-etxeak Gipuzkoan (49,3%) eta Bizkaian (43,7%) banatuta daude. Bestalde, jardueraren bolumen handiena Bizkaian dago; izan ere, bertan egiten dira ikus-entzunezkoen ekoizpenen % 53,6, Gipuzkoan % 43,8 eta Araban gainerako % 2,6 (ikus 41. irudia).

Agenteen % 17,1ek milioi bat eurotik gorako diru-sarrerak ditu, diru-sarreraren % 69,2 sortzen du eta enpleguaren % 58,8 biltzen du. Ehuneko hori tamaina handiko ekoizpen-etxeei dagokie, haien diru-sarrerak eta langile kopuruaren batez bestekoak (35,4) adierazten duten moduan (ikus 42. irudia).

41. IRUDIA

Ikus-entzunezko ekoizpen-etxeak eta jarduerak, lurralde historikoaren arabera. Ehunekoak eta 100.000 biztanleko agente-ratioa. 2009.



* Ikus-entzunezko ekizpenen zenbaketatik kanpo utzi da Bizkaian kokatutako ETB, guztizko ekoizpenen guztizkoan duen pisuak jardueraren lurralde-banaketa azterketa orokorra zailtzen duela kontuan hartu delako.

42. IRUDIA

Ekoizpen-etxeak, guztizkoarekiko diru-sarreraren eta langileen arabera. 2009.

| | Agenteak | | Diru-sarrerak | Urteko lanaldi osoko langile baliokideak | |
|---------------------------|-----------|--------------|---------------|--|----------------|
| | Maizt. | % | % | % | Batez bestekoa |
| 1.000.000 € baino gehiago | 12 | 17,1 | 69,2 | 58,8 | 35,4 |
| 500.001-1.000.000 € | 14 | 20,0 | 14,3 | 16,7 | 8,6 |
| 250.001-500.000 € | 21 | 30,0 | 12,5 | 14,2 | 4,9 |
| 100.000-250.000 € | 13 | 18,6 | 3,2 | 6,8 | 3,8 |
| 100.000 € baino gutxiago | 10 | 14,3 | 0,9 | 3,5 | 2,5 |
| Guztizkoa | 70 | 100,0 | 100,0 | 100,0 | 10,3 |

Oharra: ETBko datuak ez daude barne.





**ZEHARKAKO
IRAKURKETAK**

1. ASIMETRIAK

Sektoreen datu globalek eta agenteen tipologia desberdinek kultura-errealitaterako hurbilketa ahalbidetzen dute, ikuspegi orokorra baina xehetasunik gabekoa eskainiz. Atal honetan sektore bakoitzean dauden asimetriei erreparatu zaie nahita 80-20 araua edo Paretoren printzipioa aplikatuz: diru-sarrera handienak dituzten agenteen % 20aren eta gainerako % 80aren artean ebaketa bat aplikatuz desberdintasunak aurkitu nahi dira. Logikoa denez, artifizio honek diru-sarrerek pisu handia izatea eragiten du baina eremu bakoitzeko eragina ikusten laguntzen du eta sektoreen arteko desberdintasunak ere bistaratzeko ditu. Horrela, begirada bikoitza eta osagarria lortzen da: alde batetik, diru-sarrera handienak dituzten agenteen irudikapena eta bestetik, agenteen zati handienari dagokion bolumena erakustea (ikus 43. irudia).

Asimetriei eta metaketa-mailei ikuspegi globaletik begiratuta, sektore eta agente-tipologia guztietan eredu komunak daudela esan daiteke: lehenik, nabarmentzekoa da kasu guztietan, galerietan izan ezik, diru-sarrera handienak dituzten agenteen % 20k biltzen duela agente-tipologia bakoitzeko diru-sarreraren % 60 baino gehiago. Horrela, orokorrean esan daiteke EAEko arteetan eta kultura-industrietan metaketa-maila handia dagoela.

Bigarrenik, ikus daiteke diru-sarreraren metaketa-maila handiena dutenak agente erakusleak direla. Horrela, metaketa handienaren rankingaren buruan daude musika-sustatzaile pribatuak, ikusizko-arteak erakusteko zentroak, arte eszenikoetako programatzaileak (aretoak nahiz jaialdiak) eta kontzertu-aretoak. Metaketa-ehunekoei erreparatuz esan daiteke arte eszenikoak erakusteko agenteen eta ikusizko-arteak erakusteko agenteen artean alde handia dagoela: ikusizko-arten kasuan, % 87 eta arte eszenikoen kasuan, % 80. Musikaren kasuan ehunekoa % 75 arte murrizten da.

43. IRUDIA

Agente-tipologiaren rankinga, diru-sarrera handienak dituzten agenteen % 20aren diru-sarreraren metaketa-mailaren arabera. 2009.

| Agente-tipologia | Diru-sarreraren % |
|---|-------------------|
| Musika-sustatzaile pribatua | 88,6 |
| Ikusizko-arteak erakusteko zentroa | 87,1 |
| Arte eszenikoetako jaialdiak | 80,3 |
| Arte eszenikoetako aretoak | 80,1 |
| Kontzertu-aretoak | 78,0 |
| Disko-saltokiak | 75,1 |
| Musika-programatzaile publikoa | 75,0 |
| Ikus-entzunezko ekoizpen-etxea ¹ | 72,0 |
| Argitaletxea | 66,4 |
| Arte eszenikoetako ekoizlea | 65,1 |
| Liburu-denda | 63,9 |
| Arte-galeria | 55,5 |

* ETB gabe.

Kultura-saltokien agenteen artean, oso metaketa-maila desberdinak daude. Hori horrela izanik, disko-saltokien kasuan diru-sarreraren metaketa % 75 arte iristen da. Aldiz, liburu-dendak eta galeriak dira rankinga ixten duten agente-tipologiak eta, beraz, asimetria-maila txikiagoa dutenak.

Bestalde, ekoizleak (ikus-entzunezko ekoizpen-etxeak, argitaletxeak eta arte eszenikoetako ekoizleak) elkarren ondoan kokatzen dira asimetria-mailaren rankingean, agente handienek diru-sarreraren % 65 baino gehiago metatuz.

Azkenik, tipologia publikoen eta pribatuaren arabera asimetria-maila desberdinei erreparatzea ere interesgarria da: titulartasun pribatuaren nagusitasuna duten agente-tipologietan eredu komunik ikusten ez bada ere, titulartasun publikoa nagusitzen denetan asimetria handia eta komuna ikus daiteke. Horixe gertatzen da arte eszenikoetako programatzaileen, musika-programatzaile publikoen eta ikusizko-arteak erakusteko zentroen kasuan.


ARTE ESZENIKOETAKO EKOIZLEAK

Aipatzeko moduko lehen datua da agenteen % 20aren pisua termino ekonomikoetan eta enpleguan nabaritzen dela. Bereziki nabarmentzekoa da sektoreko guztizko diru-sarreretan duen pisua: 12 konpainiak biltzen dute % 65,1 (8,1 milioi euro). Konpainien enpleguaren zati handi bat 12 konpainia horiek sortzen dute (% 44,6).

Alabaina, horiek ekoizpen-jardueran duten pisua % 30ekoa da; horren arrazoia sustatzen dituzten ekoizpenen ezaugarriak izan daitezke, baliabideei dagokienez asmo handikoak direlako. Datu hori % 34,8 arteraino pixka bat igotzen da antolatuko emanaldien kasuan (ikus 44. irudia).

44. IRUDIA

Arte eszenikoetako ekoizleen arteko asimetriak. 2009.



ARTE ESZENIKOETAKO PROGRAMATZAILEAK


Aretoen kasuan, agente desberdinen arteko asimetria oso nabarmena da: 13 aretok hartzen dute diru-sarreraren guztizko bolumenaren % 80, enpleguaren % 68,3 eta ikusleen % 71. Areto handiek emaitza hauetan duten eragina ukaezina da eta eragin horren ondorioz agenteen % 20 horren eta gainerako % 80aren artean polarizatutako mapa marrazten da. Programazio egonkorak eskaini ditzaketen eta asmo handiko ekoizpenak kontrata ditzaketen agenteak dira eta horrek publikoaren erantzunean eragina izaten du. Hiriburuetako eta biztanle gehieneko udalerrietako aretoez ari gara.

Ikuskizun eszenikoen eskaintzari dagokionez ere 13 aretoko talde horren eragina handia da baina datuek mapa partekatuagoa marrazten dute: ikuskizunen % 67,2 gainerako aretoek programatu dute baina pisu hori murriztu egiten da aretoen talde handi horrentzat emanaldiei dagokienez (% 59,9); izan ere, areto handiek ikuskizuneko ratio handiagoak dituzte (2,2) —ikus 45. irudia—.


Arte eszenikoen jaialdietan ere errealitate desberdin hori ikus daiteke diru-sarrerei dagokienez; 6 jaialdik biltzen dute arte eszenikoetako programatzaileen profil guztiaren diru-sarreraren % 80,3. Jaialdietako langileen erdiak baino gehiagok (% 53,8) garatzen du bere jarduera 6 agente horietan.

Bestalde, agente horiek jaialdi guztien eskaintza eszenikoan duten pisua % 30 ingurukoa da (ikuskizunen % 32,4 eta programatutako emanaldien % 28,8) —ikus 46. irudia—.

45. IRUDIA
Arte eszenikoak programatzen dituzten aretoen arteko asimetriak. 2009.



46. IRUDIA Arte eszenikoetako jaialdien arteko asimetriak. 2009.



LIBURU-DENDAK ETA ARGIALETXEAK


Diru-sarrera handienak dituztenen taldea osatzen duten 21 liburu-dendek diru-sarreraren eta liburu-salmentaren zifra handietan eragin handia dute. Azpimarratzekoa da liburu-denda horietako gehienak kateetako zati direla, nahiz eta baten bat liburu-denda independentea izan. Agente-talde horren diru-sarrerak 40,3 milioi eurokoak dira, hau da, diru-sarreraren guztizko bolumenaren % 63,9; gainerako saltokiekiko desberdintasun handienak liburu-salmentagatiko diru-sarreretan (guztizkoaren % 66,8) eta saldutako liburu kopuruan atzematen dira; izan ere, saldutako 10 aletik ia 7 aipaturako establezimendu horietan saltzen dira.

Agente-talde horrek sektorearen enpleguan duen eragina ere kontuan hartzekoa da, EAEko liburu-dendetako 340 enpleguen ia erdia talde horretan biltzen baita (ikus 47. irudia).


Diru-sarrera handienak dituzten agenteen % 20 diren 8 argitaletxeek 26,1 milioi euroko diru-sarrerak dituzte (sektorearen guztizko bolumenaren % 66,4); era berean, liburu-salmentagatiko diru-sarreraren 10 eurotik 7 hartzen dituztenak dira. Talde honek enplegatzen du argitaletxe guztietako langileen % 51,7.

Talde horren ekoizpen-jarduerak ere pisua du argitaletxeen multzoan, argitaratzen diren nobedade nahiz ale kopuruan; izan ere, gainerako argitaletxeek baino tirada handiagoak izaten dituzte (ikus 48. irudia).

47. IRUDIA
Liburu-denden arteko asimetriak. 2009.



48. IRUDIA
Argitaletxeen arteko asimetriak. 2009.



MUSIKA-PROGRAMATZAILEAK

Diru-sarrera handienak dituzten agenteen % 20 den programatzaile publikoen taldea osatzen duten 13 udal handiek eta jaialdiek 13,7 milioi euroko bolumen ekonomikoa sortzen dute (gutzizkoaren % 75,0) eta gainera, tipologia horretako langileen erdiak biltzen dituzte.


Programatutako kontzertuei dagokienez eragin txikiagoa dute (% 38,3) baina ikusleak erakartzeko gaitasuna talde horren musika-eskaintzaren ezaugarriekin lotuta dago: jaialdi eta kontzertu handiak (ikus 49. irudia).

Sustatzaile pribatuak dira asimetria handiena azaltzen duten agenteen adibide bat: 4 trakzio-agenteen eragina izugarria da diru-sarreretan (guztizkoaren % 88,6), enpleguan (% 77,8) eta ikusleengan (guztizkoaren % 72,8) —ikus 50. irudia—.

Kontzertu-areto pribatuen kasuan ere, asimetria nabari da areto handien eta gainerako aretoen artean, batez ere, diru-sarrerei eta enpleguari dagokienez. Areto horiek sortzen duten jarduerak barne hartzen ditu programatzen diren kontzertuen herena eta tipologia horretako ikusleen ia erdiak (ikus 51. irudia).


49. IRUDIA

Musika-programatzaile publikoek arteko asimetriak. 2009.




50. IRUDIA

Musika-sustatzaile pribatuen arteko asimetriak. 2009.




IRUDIA 51.
Kontzertu-aretoen arteko asimetriak. 2009.



DISKO-SALTOKIAK

Datuek erakusten dute disko-saltoki handiek sektore osoan duten eragina. Diru-sarreraren hiru laurdenak agenteen % 20ko multzoa osatzen duten lau saltokiek sortzen dituzte. Talde horretan daude sektoreko langileen erdiak eta EAEn saldutako disko guztien % 70,8 saltzen dute (ikus 52. irudia).

IRUDIA 52.
Disko-saltokiak agenteen arteko asimetriak. 2009.



IKUSIZKO-ARTEEN AGENTEAK


% 20 osatzen duten aipatutako arte-galeriek diru-sarreraren guztizkoaren erdia baino gehiago metatzen dute.

Sektorearen ezaugarri propioek (enpresa egitura txikiak) eta sustatzen duten erakusketa-denboraldien egutegiak eragiten dute enpleguan eta antolatutako erakusketetan duten pisua (guztizkoaren % 32,5 eta % 22,3 hurrenez hurren) beren agente kopuruari dagokion mailarekin gehiago bat etortzea (ikus 53. irudia).


Ikusizko-arteak erakusteko aretoen aniztasuna izen horretan biltzen diren agente-aniztasunari oso lotuta dago: Foru Aldundietako eta finantza-erakundeetako areto handiak eta udalerrri txikietan kokatutakoak ditugu. Hori da hain zuzen ere agenteen % 20ko taldea (diru-sarrerari dagokienez) osatzen duten 10 aretoek guztizko diru-sarreraren % 87,1 eta enpleguaren % 63,7 biltzeko arrazoiak.

Aretoen arteko desberdintasunen oinarria ez da erakusketa kopurua, areto handiek eta txikiak antzeko egutegiak baitituzte, baizik eta artistei, katalogoei, lekuei eta abarrei dagokienez antolatzen dituzten erakustaldi motak (ikus 54. irudia).

53. IRUDIA
Arte-galerien arteko asimetriak. 2009.



54. IRUDIA
Ikusizko-arteak erakusteko aretoen arteko asimetriak. 2009.



IKUS-ENTZUNEZKOEN EKOIZPEN-ETXEAK


ETB estatistikan barruan dago baina azterketa honetan kontuan ez hartzea erabaki da, ETBren pisua erabat erabakigarria delako eta bere eraginak gainerako agenteen ezaugarriak ezartzea zailtzen duelako. ETB EAEko ikus-entzunezkoen motorra da; bere diru-ekarpena guztien diru-sarreraren % 70 baino handiagoa da eta ia enpleguaren eta ekoizpenaren erdia biltzen du.

Aurretik aipatutako 20-80 araua aplikatuz gainerako ekoizpen-etxeei erreparatzen badiegu ikus dezakegu 14 ekoizpen-etxek osatutako agente-taldeak sektorearen diru-sarreraren hamar euroatik 7 biltzen dituela; bestalde, enpleguan duen pisua ere adierazgarria da, hamar langiletatik sei enplegatzen dituelako. Beraz, 14 ekoizpen-etxe horiek dira egitura industrializatuenak dituztenak.

Dimentsio ekonomikoari eta enpleguari dagokion desberdintasuna ez da hain handia ekoizpen-terminotan (ikuspuntu kuantitatibotik begiratuta) eta horrek berriz ere ekiten dieten ekoizpenen ezaugarrietara eramaten gaitu (ikus 55. irudia).

55. IRUDIA

Ikus-entzunezkoen ekoizpen-etxeen arteko asimetriak*. 2009.



* ETB gabe.

2. ZUZENeko KULTURA VS. KULTURA ERREPRODUZIGARRIA

Arteen eta kultura-industrien taxonomietako bat izan daiteke kultura-produktuen erreproduzigarritasunaren inguruko izaerari erreparatuta egiten dena. Horrela, gaur egungo estatistikaren bitartez bereiz ditzakegu, alde batetik, prozesu estandarizatuen bidez masiboki erreproduzitu eta, banatu ahal izatea ezaugarri komun gisa duten agenteak (ikus-entzunezkoak, diskoa eta liburua) eta bestetik, arteei loturikoak, ondasun eta zerbitzuen ekoizleak, horretarako egokitutako leketan gozatu behar direnak (arte eszenikoetako ekoizleak eta programatzaileak, musika programatzaileak eta ikusizko-arteetako eragileak). Taxonomia horrek izaera estatikoari (erreproduzigarria) eta izaera mugikorrari (zuzenean) erreparatuz kontsumoaren ikuspuntutik ezarri daitekeen taxonomiarekin du lotura zuzena. Gaur egungo paradigma digitalak kulturaren kontsumo-moduak aldatu ditu eta zuzeneko kulturaren eta kultura erreproduzigarriaren ezaugarriak eta horien arteko orekari eragin die baina hala ere, bereizketa hori egitea oraindik ere egokia da bi errealitateen azterketa bereiztua egiteko.

Guztira zuzeneko kulturaren 352 agente zenbatu dira, guztizkoaren % 59, eta kultura erreproduzigarriaren 243 agente, guztizkoaren % 41 (ikus 56. irudia).

Zuzeneko agenteen zenbakizko pisua kontrastean dago dimentsio ekonomikoaren pisuarekin: kultura erreproduzigarriaren agenteak dira bolumen handiena biltzen dutenak diru-sarreretan (% 69,7) eta enpleguan (% 62,0).


Termino absolututan, kultura erreproduzigarriaren agenteen diru-sarrerak 323,2 milioi euro dira eta zuzeneko kulturaren agenteenak berriz, 140,3 milioi euro. Kultura erreproduzigarriaren agenteetako langile kopurua 1.970 da eta zuzeneko kulturako kopurua, 1.207.

Diru-sarrerei eta enpleguari dagozkien pisuen arteko desberdintasuna ikusita esan daiteke kultura erreproduzigarriko langile baten produktibitatea zuzeneko kulturako langile batena baino handiagoa dela: lehenak enpleguaren % 62 eta diru-sarreraren % 69,7 biltzen ditu eta zuzeneko kulturak berriz, enpleguaren % 38,0 eta diru-sarreraren % 30,3 (ikus 57. irudia).

Agenteen titulartasunak erakusten du desberdintasun argia dagoela kultura erreproduzigarriaren eta zuzeneko kulturaren tipologian daudenen artean. Lehen kasuan, salbuespeneko kasu gutxi batzuetan izan ezik, agente pribatuak izaten dira. Alabaina, zuzeneko kulturaren kasuan, agenteen erdiak baino gehiago titulartasun publikokoak (% 55,4) dira, % 32,4 titulartasun pribatukoak, eta % 12,2 elkarteak eta fundazioak. Horrela ondoriozta daiteke EAEko kultura-programazioan sektore publikoaren protagonismo argia dagoela, eta horri lotuta esan behar da elkarteetako eta fundazioetako programatzaileen artean badirela kanpora ateratako programazio publikoetako agente arduradunak administrazio publikoek lan hori kanpora ataratzearen ondorioz. Aitzitik, eta logikoa denez, izaera industrial eta erreproduzigarria duen ekoizpena agente pribatuen eskuetan dago (ikus 58. irudia).


56. IRUDIA

Zuzeneko kulturaren agenteak eta kultura erreproduzigarriaren agenteak, lurralde historikoaren arabera. Datu absolutuak eta ehunekoak. 2009.




57. IRUDIA

Urteko lanaldi osoko langile baliokideak eta diru-sarrerak, zuzeneko kulturaren eta kultura erreproduzigarriaren agenteen arabera. Datu absolutuak eta ehunekoak. 2009.



58. IRUDIA

Zuzeneko kulturaren agenteak eta kultura erreproduzigarriaren agenteak, titulartasunaren arabera. Datu absolutuak eta ehunekoak. 2009.



3. ARTEEN ETA KULTURA-INDUSTRIEN BOLUMEN EKONOMIKOAREN BILAKAERA

Arteei eta kultura-industriei buruzko estatistikaren bigarren edizioak oraindik ez du ahalbidetzen sektore bakoitzeko dimentsio ekonomikoaren bilakaera-joeren azterketa zehatua egitea. Edizio berriak egiten diren heinean bilakaera osatuagoak eta sektore gehiagorenak ikusi ahal izango dira. Hala ere, orain daukagun informazioarekin zenbait ezaugarri ezar daitezke ikuspegi ekonomikotik begiratuta, baina ezaugarri horiek zehaztu, zabaldu edo zuzendu egin beharko dira datu berriak lortzen diren neurrian eta konparazio historikoak egiteko aukerak handitzen diren neurrian.

Termino orokorretan, denboran zeharreko konparazioak ahalbidetzeko datuak dituzten agente-tipologia guztiei dagokionez eta agenteko batez bestekoak kontuan hartuta, esan daiteke agenteen batez besteko bolumen ekonomikoa asko hazi dela aurrekontu-terminotan (diru-sarrerak eta gastuak).

Arte eszenikoetako ekoizleei dagokionez nabarmentzekoa da batez besteko gastuen igoera (% 17,7) batez besteko diru-sarreraren igoera (% 12,4) baino handiagoa izan dela eta, beraz, diru-sarrerekiko batez besteko mozkinen marjina murriztu egin dela % 9,3tik % 5era.

Arte eszenikoetako programatzaileetan ere bilakaera positiboa ikusten da batez besteko aurrekontu-dimentsioari dagokionez; izan ere, % 10etik % 11ra igo dira diru-sarrerak nahiz gastuak. Alabaina, 2007an zegoen batez besteko mozkin-marjina txikitik (% 1,1) ia aurrekontu-oreka lortzera igaro da. Kontuan hartu behar da dagokigun agente-tipologian agente publikoak nagusitzen direla (% 79,6) eta agente horiek aurrekontu orekatuekin lan egiten dutela.


Laburbilduz, ikusizko-artearen agenteen artean batez besteko aurrekontuak nabarmen igo dira: % 36 diru-sarreraren aldakuntzan eta % 41,1 gastuen aldakuntzan. Hiru agente-tipologiaren dimentsioa hazi egin da eta ekoizpen-zentroak dira (funtsean aurrekontu publikoek mantenduak) batez besteko handienak dituztenak. Azkenik, galeriek 2007an batez besteko diru-sarreraren eta gastuen arteko balantze positiboa erakusten zuten baina 2009an agenteko 10.615 euroko alde negatiboa izatera igaro dira (ikus 59. irudia).

Aurrekontu-bolumenarekin gertatu den moduan, agenteko langileen batez besteko adierazlea ere igo egin da ia agente-tipologia guztietan (ikusizko-arteak erakusteko zentroetan soilik jaitsi da pixka bat) —ikus 60. irudia—.

Agenteen dimentsio ekonomikoari dagokion bilakaera positiboa modu arinean islatzen da agente erakusleen batez besteko jarduera-mailaren igoeran, bai arte eszenikoetako emanaldien batez bestekoan bai antolatutako erakusketen batez bestekoan. Bestalde, arte eszenikoetako ekoizleak ekoiztutako ikuskizunen batez bestekoa % 50 baino gehiago igo dute, 1,2tik 1,9ra (ikus 61. irudia).


59. IRUDIA

Diru-sarrereren batez bestekoa, agente-tipologiaren arabera. Milako eurotan. 2007 eta 2009.




60. IRUDIA

Urteko lanaldi osoko langile baliokideen batez bestekoa, agente-tipologiaren arabera. 2007 eta 2009.



61. IRUDIA

Jardueren batez bestekoa, agente-tipologiaren arabera. 2007 eta 2009.



4. EUSKARAZKO KULTURA

TESTUINGURUA


EAE bi hizkuntza ofizial, euskara eta gaztelania, dituen erkidegoa da eta hizkuntza-errealitate hori bi hizkuntzen presentzia-maila desberdinekin islatzen da kultura-sektore desberdinetan. Datuak aztertzeko EAEko hizkuntza-errealitate horren ezaugarriak hartu behar dira kontuan³.

Hizkuntza-errealitate horrek euskarazko kultura-produktuentzat tamaina txikiko merkatua eskaintzen du. EAEko 16 urtetik gorako biztanleriari (1,87 milioi pertsona) erreparatzen badiogu, erdiek baino gehiagok ez dute euskaraz ez hitz egin ez eta ulertu ere egiten, eta, beraz, euskararen barne-merkatua 922.050 pertsonakoa da (horietatik 322.000 pertsonak euskara ulertu besterik ez dute egiten baina hitz egin ez). Lurralde historikoen arabera desberdintasun nabarmenak ikusten dira, hau da, % 49,9 elebidun Gipuzkoan, % 25,4 elebidun Bizkaian eta % 16,8 elebidun Araban (ikus 62. irudia).

Tamaina txikiko merkatua izateari erantsi behar zaio biztanleria elebidunak ez duela bere kultura-kontsumo dena euskarazko produktuetan egiten: % 35,7k euskarazko liburuak irakurtzen ditu, % 79k euskal musika entzuten du, % 62,5ek euskal musika erosten du, telebista-kontsumoaren % 32,4 euskarazko telebistan egiten dute eta % 36,1 irrati-kontsumoari dagokio (ikus 63. irudia).

62. IRUDIA

Hizkuntza-gaitasuna, lurralde historikoen arabera. 16 urte edo gehiagoko biztanleriaren gaineko ehunekoak. 2011.




Iturria: Egileak egina, V. Inkesta Soziolinguistikoa oinarritzat hartuta. Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza. 2011

³ Errealitate hori testuinguruan kokatzeko 2011ko V. Inkesta Soziolinguistikotik eta Kultura-ohiturei, -praktikei eta -kontsumoari buruzko 2007-2008ko Estatistikatik bildu dira datuak. Aurreko lan horiek Arteei eta kultura-industriari buruzko Estatistikarekin alderatuz urte desberdinei badagozkie ere, erreferentzia-esparru egokitzat hartu dira.

63. IRUDIA

Elebidunen euskarazko kultura-kontsumoa. Ehunekoak. 2007-2008.



Iturria: Egileak egina, Kultura-ohiturei, -praktikei eta -kontsumoari buruzko 2007-2008ko Estatistika oinarritzat hartuta. Kulturaren Euskal Behatokia


EKOIZPENA ETA PROGRAMAZIOA

Industria diskografikoak eta ikus-entzunezko ekoizleek euskaraz egindako produkzioa % 50 baino handixeagokoa da. Arte-eszenikoetako euskarazko ekoizpena % 50ekoa da, eta arte-eszenikoetako programazioan ikuskizunen % 36,6 euskaraz egiten da.

Bestalde, EAEko argitaletxeek argitaratutako aleei dagokienez, % 40 inguru argitaratzen dute euskaraz (ikus 64. irudia).

64. IRUDIA

Euskararen presentzia ekoizpenean eta programazioan, agente-tipologiaren arabera. Ehunekoak. 2009.



■ Ekoizpena/argitalpena euskaraz ■ Ekoizpena/argitalpena beste hizkuntza batean

* Euskaraz egindako ekoizpenak gaztelaniaz nahiz euskaraz ekoiztutako ikuskizunak biltzen ditu


EUSKARA IKUS-ENTZUNEZKOETAN

Zinemaren ekoizpen-etxeei dagokie euskararen presentzia handiena (% 61,5) eta ondoren, telebistaren alorreko ekoizpen-etxeei (% 54,6). Beste muturrean kokatzen dira dokumentalen ekoizpen-etxeak (% 31,5). Kasu horretan, publizitatearen kasuaren antzera (% 41,4 euskaraz), kontuan hartu behar da ikus-entzunezko bi ekoizpen mota horiek barne-eremua gainditzen duten merkatuak izaten dituztela eta, beraz, joerarik ohikoena bikoizketara jotzea izaten dela (ikus 65. irudia).

⁴ Honako hau hartu behar da kontuan: txosten honen 6. atalean xehatzen den moduan, EAEn 2009an programatu diren arte eszenikoetako emanaldien ia % 50 Estatuko beste puntuetatik eta atzeritik etorritako konpainienak izan dira; hori merkatu-kuota garrantzitsua da eta euskarazko programazioan duen presentzia murrizten du. Bestalde, estatistika horrek ez du jasotzen produktutako eta programatutako ikuskizun eszenikoek generoa baina azken urteetan euskararen presentzia igo egin da haurrei eta gazteei zuzendutako produkzioetan, horiek baitira euskararen ezagutza-maila handiena duten biztanle-segmentuak.

65. IRUDIA

Euskararen presentzia ikus-entzunezkoen ekoizpenean, ekoizpen-etxeen tipologiaren arabera. Ehunekoak. 2009.



LURRALDEAREN ARABERAKO BANAKETA

Euskarak EAEko lurralde desberdinetan duen presentziari dagozkion desberdintasun nabarmenenak kopia diskografikoei eta argialetxeek argitaratutako aleei dagozkie. Gipuzkoan disko-etxeek egindako kopien % 74,9 euskaraz dira baina, Bizkaiko kopien % 19,2 soilik dira euskaraz. Euskarak lurralde batean eta bestean duen presentzia desberdinaren arrazoiak ez datza disko-etxeen dimentsioan baizik eta disko-etxeek argitaratzen eta banatzen duten musika-produktu motan eta zuzentzen diren merkatuan.

Bestalde, Gipuzkoako eta Bizkaiko argialetxeek aleen % 42 euskaraz argitaratu dituzte baina Arabakoek soilik % 10.


Ikus-entzunezko ekoizpenei dagokienez, Gipuzkoa da euskarak presentzia handiena duen lurraldea (% 48,9). Arte eszenikoei dagokienez ere, Gipuzkoan ematen dira ehuneko handienak, programazioaren ia % 50 eta ekoizpenaren % 24,1.

Azken batean, datu horiek aztertuta ezin da identifikatu jarduera garatzen den lurralde historikoaren arabera euskararen presentziaren joera orokor bat; aldiz, ildo horretan sektore bakoitzak gehien bat agenteen profilaria lotutako berezko ezaugarriak ditu (ikus 66. irudia).


66. IRUDIA

Euskararen presentzia ekoizpenean eta programazioan, lurralde historikoaren arabera. Ehunekoak. 2009.


Euskaraz ekoiztutako ikuskizun eszenikoak*




Euskaraz argitaratutako ale berriak




Euskarazko ikus-entzunezko ekoizpenak**



Euskarazko kopia diskografikoak



Euskaraz programatutako ikuskizun eszenikoak



* Euskaraz egindako ekoizpenak gaztelaniaz nahiz euskaraz ekoiztutako ikuskizunak biltzen ditu.

** ETBrik gabe.

5. EKIMEN PUBLIKOAREN PISUA ETA MENPEKOTASUN MAILA

Orokorrean, EAEko kultura-agente pribatuek arlo publikoarekiko mendekotasun-maila txikia dute eta soilik beren diru-sarreraren % 7,5 dator diru-laguntzetatik. Alabaina, zenbait alderdi kontuan hartu behar dira datuak aztertzerakoan: lehenik eta behin, sektorearen eta agente motaren arabera asko aldatzen den errealitatea dela, merkatuaren logika oso desberdina delako horietako bakoitzean, eta, bestalde, kultura-agente baten mendekotasun publikoa ekarpen publikoetatik jasotzen dituen diru-sarrek ez eze zerbitzu eta produktu kulturalen erosle izateak ere baldintzatzen duela.

Arte eszenikoetako sektoreak du bere agente pribatuen artean arlo publikoarekiko mendekotasun-mailarik handiena: programatzaileen diru-sarreraren % 30,9 diru-laguntza publikoetatik dator⁵, baita ekoizleen diru-sarreraren % 1,6 ere.

Liburuaren sektorean, liburu-denden diru-laguntzagatiko diru-sarreak testimonialak dira eta argitaletxeen kasuan ere, % 5,2ra besterik ez dira iristen.

Musikaren sektorean, musika-sustatzaile pribatuen diru-sarreraren % 14,3 diru-laguntzetatik dator baina kontzertu-aretoen eta diskoetxeen kasuan, ehuneko hori % 4,3ra jaisten da.

Arte-galerien diru-sarreraren % 7,5 diru-laguntza publikoetatik dator baina ikus-entzunezko ekoizpen-etxeen kasuan, finantziazio publikoaren maila handiagoa da, % 12,6 (ikus 67. irudia).

Orokorrean, elkarteek eta fundazioek sektore pribatuak baino mendekotasun-maila handiago izaten dute, horien guztizko diru-sarreraren % 34,7 diru-laguntza publikoetatik datorrelako. Alabaina, mendekotasun-maila handiena duten elkarte eta fundazioak arte eszenikoetako ekoizleak dira (% 44,3) eta hurrengoak, arte eszenikoetako programatzaileak (% 41,9) eta musika-sustatzaile pribatuak (% 37,7). Beste muturrean daude ikusizko-arteak erakusteko zentroak, beren diru-sarreraren % 1 baino gutxiago baita jatorri publikokoa (ikus 68. irudia).

JARDUERA

Sektore publikoko agenteen pisuari dagokionez⁶, erakunde publikoek sortutako jardueraren presentzia handiena duen eremua arte eszenikoen emanaldiena da; izan ere, horietako hamarretik zortzi agente publikoek programatzen dituzte. Ikusizko-artearen (antolatutako erakusketen % 63,3), ikus-entzunezko ekoizpenaren (% 56,9) eta musika-programazioaren (% 49,5) eremuetan agente publikoak dira jarduera handiena sortzen dutenak nahiz eta azken bi kasuetan agente pribatuekiko oreka gehiago ematen den. Ikus-entzunezko eremuari dagokionez, kontuan hartu behar da arlo publikoak jardueran duen pisu handia ETBren presentziari eta pisuari dagokiola, txosten honetako hainbat ataletan adierazi den moduan.

Azkenik, arte eszenikoetako ekoizpena ekoizle pribatuen eta elkarte eta fundazioen eskuetan geratzen da ia osorik (batez ere konpainiak) —ikus 69. irudia—.

⁵ Agente-tipologia horretan soilik 4 programatzaile pribatu biltzen direla nabarmendu behar da; beraz, datu horrek izan dezakeen adierazgarritasuna zuhurtasunez hartuko da.

⁶ Argitaletxeak, liburu-dendak, disko-saltokiak eta diskoetxeak azterketa horretatik kanpo geratzen dira agente publikorik ez dutelako.

67. IRUDIA

Agente pribatuen arlo publikoarekiko mendekotasuna, sektorearen eta agente-tipologiaren arabera*. 2009.

| Sektorea | Agente-tipologia | Agente pribatuak Maizt. | Guztizko diru-sarrerak Milako eurotan | Diru-laguntzen ehunekoa % |
|-------------------|----------------------|----------------------------|--|------------------------------|
| Arte eszenikoak | Ekoizlea | 51 | 10.023,7 | % 16,8 |
| | Programatzailea | 4 | 232,0 | % 30,9 |
| Liburua | Argitaletxea | 35 | 37.327,9 | % 5,2 |
| | Liburu-denda | 106 | 63.090,1 | % 0,3 |
| Musika | Sustatzaile pribatua | 15 | 28.165,6 | % 14,3 |
| | Kontzertu-aretoa | 16 | 5.458,2 | % 4,3 |
| | Diskoetxea | 6 | 2.049,6 | % 4,3 |
| | Disko-saltokiak | 22 | 7.263,4 | % 0,0 |
| Ikusizko-arteak | Arte-galeria | 28 | 2.029,4 | % 7,5 |
| Ikus-entzunezkoak | Ekoizlea | 69 | 62.519,8 | % 12,6 |
| Guztizkoa | | 330 | 210.896,3 | 7,7% |

* Ez dira jasotzen agente pribaturik gabeko tipologiak edota sekretu estatistikoa urra dezaketen tipologiak.

68. IRUDIA


Elkarteen eta fundazioen arlo publikoarekiko mendekotasuna, sektorearen eta agente-tipologiaren arabera*. 2009.

| Sektorea | Agente-tipologia | Elkarteak eta fundazioak Maizt. | Guztizko diru-sarrerak Milako eurotan | Diru-laguntzen ehunekoa % |
|------------------|----------------------|------------------------------------|--|------------------------------|
| Arte eszenikoak | Ekoizlea | 7 | 627,7 | % 44,3 |
| | Programatzailea | 14 | 12.446,2 | % 41,9 |
| Musika | Sustatzaile pribatua | 7 | 1.481,0 | % 37,7 |
| Ikusizko-arteak | Ekoizlea | 6 | 1.285,3 | % 20,1 |
| | Erakuslea | 7 | 2.398,3 | % 0,6 |
| Guztizkoa | | 41 | 18.238,5 | 34,7% |

* Ez dira jasotzen elkarerik eta fundaziorik gabeko tipologiak edota sekretu estatistikoa urra dezaketen tipologiak.

69. IRUDIA

Jarduera, titulartasunaren eta agente-tipologiaren arabera. Ehunekoak. 2009.



6. BERRITZEA ETA NAZIOARTEKOTZEA

INPORTAZIOA

Musika-programatzaileen programazioan ikusten da nazioartekotze-maila handiena: EAEko agenteek 2009an programatutako kontzertuen ia % 35 artista edo talde atzerritarrei edo nazio anitzekoei dagokie. Era berean, ekoizpenari dagokionez ere musika-sektorea da kanpo-merkatuekiko irekiena dagoena; izan ere, EAEko diskoetxeek egindako kopien laurdenak talde edo artista atzerritarrenak dira.

Bestalde, ikusizko-artearen sektorea da kanpo-merkatuekiko gutxiena irekitzen dena: antolatutako erakusketen % 73 EAEko artistenak izan dira, % 17 Estatukoena eta % 9,3 artista atzerritarrenak⁷.

Lehenik eta behin datu horiek kultura-kontsumoaren baldintzekin eta ohiturekin lotu behar dira. Ildo horretan, kontuan hartu behar da musika-kontsumoa ez dagoela kontsumitzaileen hizkuntza-gaitasunarekin hain zuzenean lotuta arte eszenikoen kasuan gertatzen den moduan (zehazki testu-antzerkian, ikuskizunaren hizkuntzak kontsumoan eragina duelako) —ikus 70. irudia—.

KANPO-MERKATUETAKO PRESENTZIA

EAEko arte eszenikoetako ekoizpen-konpainien nazioarteko zirkuituei dagozkien datuek erakusten dute atzerriko emanaldiak gutxitu egin direla eta Estatuan egindakoen ehunekoa ere pixka bat gutxitu egin dela. Horrela, 2007-2009 aldian arte eszenikoetako konpainiek kanpoko, Estatuko eta nazioarteko merkatuetan presentzia murrizteko joera izan dute.


Neurri handi batean, sektorearen joera orokor horren arrazoia honako hau da: krisi ekonomikoak Estatuko hainbat puntutan baino eragin txikiagoa izan duela EAEn eta horri esker programatzaileek beren jarduerari eutsi ahal izan diote beste ingurune batzuetan baino baldintza hobeetan. Horrek eragin du euskal konpainien merkatu naturaleko programazioa handitzea eta kanpo-merkatuetako presentzia murriztea.

Dantzari dagokionez, alderantzizko joera ikusten da. EAEko dantza-konpainiek nazioarteko merkatuetan duten presentzia dezente hazi da (% 19tik % 31ra) baita Estatuan egindako emanaldien ehunekoa ere. Nolanahi ere, puntu horretan kontuan hartu behar da 2007ko ediziotik 2009ko ediziora bitartean antzerki- eta dantza-konpainiak eragiketa estatistiko honetan sartzeko irizpidea modu zorrotzagoan aplikatu dela, hau da, soilik profesionaltzat hartzen direnak sartu direla horiek direlako eta horiek dira, hain zuzen ere presentziarik handiena dutenak. Ildo horretan, nabarmentzekoa da eroldan sartutako EAEko 9 dantza-konpainietatik 4k beren emanaldien % 50 baino gehiago atzerrian egin dituztela (ikus 71. irudia).

⁷ Puntu horri dagokionez, esan daiteke ikusizko-artearen ekoizleen eta ikusizko-arteak erakusteko zentroen estatistikak ez dituela museoak biltzen, museoak baitira EAEtik kanpoko artisten lanak inportatzerakoan zeregin azpimarragarriena garatzen duten agente nagusiak.


70. IRUDIA

Nazioartekotzeak kultura-programazioan eta -ekoizpenean duen pisua. Ehunekoak. 2009.



71. IRUDIA


Arte eszenikoetako ekoizpen-konpainiek egindako emanaldiak, emanaldia egin den lekua arabera. Ehunekoak. 2007 eta 2009.



BERRITZEA

Arte eszenikoetan nahiz industria diskografikoan berritze-tasa (gutzizkoarekiko ekoiztutako unitate berriak) dezente igo da 2007. urtetik. Industria diskografikoa da berritze-tasa gehiena igo duena (% 72,3), hain zuzen 2007. urtearekiko % 20 baino gehiagoko igoera; bestalde, 2009an ustiatutako arte eszenikoetako ikuskizunen erdiak baino gehiago berriak dira (% 17,3ko igoera) —ikus 72. irudia—.

72. IRUDIA
Berritze-tasa. Ehunekoak. 2007 eta 2009.



7. GENEROA

EAEko kultura-sektorean lan egiten duten langileen artean, gizonen presentzia (% 55,2) emakumeena (% 44,9) baino zertxobait handiagoa da, nahiz eta orekak sektorearen arabera aldatu.


Ikusizko-artearen sektoreari dagokio emakumeen presentziarik handiena (% 64,6), eta ondoren liburuaren sektorea kokatzen da (% 60,6). Bestalde, musikaren sektorean aurkitzen dugu gizonetzkoen ehunekorik handiena (% 62,9) eta emakumeak (% 37,1); horren ondoren kokatzen dira ikus-entzunezkoen sektorea (langileen % 60,3 dira gizonak) eta arte eszenikoen sektorea (% 54 gizonak eta % 46 emakumeak). Gizonen eta emakumeen arteko orekarik handiena arte eszenikoen sektorean gertatzen da, nahiz eta gizonen presentzia zertxobait handiagoa den (% 54) —73. irudia—.

Azterketa agente-tipologiaren arabera eginda, azpimarragarriak dira sexuen arteko desberdintasun handiagoak agertzen dituzten zenbait kasu. Horrela, kontzertu-aretoetan langileen ia % 80 gizonetzkoak dira; ehuneko hori disko-saltokietan ikusten denaren antzekoa da, emakumezkoen ehuneko % 30 baita. Emakumeen presentzia handiagoa duten agente-tipologiei dagokienez, ez dira aurretik aipatutakoak bezain desoreka handiak gertatzen baina nabarmentzekoa da ikusizko-artearen ekoizleen kasuan langileen % 76,9 emakumeak direla eta neurri txikiagoan, liburu-dendetako emakumeen ehuneko % 67 da (ikus 74. irudia).

Lurraldeari erreparaturaz ez da desberdintasun handirik ikusten gizonetzko eta emakumezkoen pisuaren artean; alabaina, Bizkaian gizonen presentzia handiagoa da (% 56,8), ondoren Gipuzkoan (% 53,3) eta aldiz, emakumeen ehunekoak (% 51,3) gizonetzkoen (% 48,7) ehunekoa gainditzen duen lurralde bakarra Araba da (ikus 75. irudia).

73. IRUDIA

Urteko lanaldi osoko langile baliokideak, sexuaren eta sektoreen arabera. Ehunekoak. 2009.



Elkarteetako eta fundazioetako langileen artean emakumeen ehunekoa (% 68,2) gizonen ehunekoa (% 31,8) baino askoz handiagoa da; sektore publikoan, aldiz, gizonen presentzia handiagoa da (% 60,8). Azkenik, sektore pribatuan daude sexu biak orekatuen banatuak (% 52,3 gizonak eta % 47,7 emakumeak) —ikus 76. irudia—.


74. IRUDIA

Urteko lanaldi osoko langile baliokideak, sektoreen, agente-tipologiaren eta sexuaren arabera. 2009.

| Sektorea | Agente-tipologia | Gizonak % | Emakumeak % | Guztizkoa % |
|-------------------|-------------------------|--------------|----------------|----------------|
| Arte eszenikoak | Ekoizlea | 53,6 | 46,4 | 100,0 |
| | Programatzailea | 54,3 | 45,7 | 100,0 |
| Liburua | Argitaletxea | 49,7 | 50,3 | 100,0 |
| | Liburu-denda | 33,0 | 67,0 | 100,0 |
| Musika | Orkestra | 64,5 | 35,5 | 100,0 |
| | Programatzaile publikoa | 54,3 | 45,7 | 100,0 |
| | Sustatzaile pribatua | 57,9 | 42,1 | 100,0 |
| | Kontzertu-aretoa | 78,7 | 21,3 | 100,0 |
| | Diskoetxea | 58,1 | 41,9 | 100,0 |
| | Disko-saltokiak | 70,8 | 29,2 | 100,0 |
| Ikusizko-arteak | Ekoizlea | 23,1 | 76,9 | 100,0 |
| | Erakuslea | 39,8 | 60,2 | 100,0 |
| | Arte-galeria | 40,5 | 59,5 | 100,0 |
| Ikus-entzunezkoak | Ekoizlea | 60,3 | 39,7 | 100,0 |
| Guztizkoa | | 55,2 | 44,8 | 100,0 |


75. IRUDIA

Urteko lanaldi osoko langile baliokideak, sexuaren eta lurralde historikoaren arabera. 2009.



76. IRUDIA

Urteko lanaldi osoko langile baliokideak, sexuaren eta agente-titulartasunaren arabera. 2009.





LABURPENA



Arteei eta Kultura Industriei buruzko 2009ko Estatistikak hainbat sektoretako (arte eszenikoak, musika, ikusizko-arteak, liburua eta ikus-entzunezkoak) 595 agenteri buruzko informazioa biltzen du.

Egin den azterketari esker arteen eta kultura-industrien ezaugarri batzuei erreparatu zaie ikuspegi globaletik nahiz sektore bakoitzari zuzendutako ikuspegi espezifikoetik. Ezaugarri horien artean, laburpen gisa, honako hauek dira azpimarragarrienak:

Arteek eta kultura-industriek 463 milioi euroko diru-sarrerak sortzen dituzte eta 3.000 lagunetik gora enplegatzen dituzte.

Arteen eta kultura-industrien diru-sarreraren eta enpleguaren bolumenak erakusten du kultura-sektorea EAEko ekonomiaren sektore garrantzitsutzat hartu behar dela. Sektore horrek orokorrean emaitza positiboak ditu, diru-sarreraren eta gastuen balantze globalean 14,3 milioi euroko marjinarekin, hau da, diru-sarreraren % 3,1. Marjina horiek askoz handiagoak dira sektore pribatua nagusitzen den agente-tipologietan.

Agente gehienak titulartasun pribatukoak dira eta arlo publikoarekiko mendekotasun-maila txikia dute.

Agente pribatuen nagusitasuna, 10 agentetatik 6, enpleguan islatzen da, hain zuzen ere liburuaren industriari edo ikus-entzunezkoen ekoizleak sortzen duten enplegu-bolumenaren ondorioz.

EAEko kultura-agente pribatuen diru-sarreraren % 7,7 baino ez dator diru-laguntzetatik. Horien artean, arte eszenikoen sektorea da arlo publikoarekin mendekotasun handiena duena; musika-sustatzaile pribatuak eta ikus-entzunezko ekoizpen-etxeak ere aipatutako ehunekoaren gainetik kokatzen dira. Beste muturrean daude liburuaren, kontzertu-aretoen eta diskoetxeen sektoreak.

Dimentsio handieneko agenteek lurralde-kontzentrazioa jotzen dute.

Orokorrean, lurralde-banaketak itxuratzen duen mapan agenteen erdiak Bizkaian kokatzen dira, agenteen % 38,5 Gipuzkoan eta % 11,4 Araban; alabaina, 100.000 biztanleko agente-ratioak ematen dituen emaitzekin agente-metaketa zehaztu daiteke eta banaketa orekatuagoa agertu: 32,5 Gipuzkoan, 25,9 Bizkaian eta 21,7 Araban. Nolanahi ere, ikuspuntu ekonomikotik ikus daiteke pisu handiena duten sektoreetako agente nagusiak (ikus-entzunezkoak, liburua, arte eszenikoetako programatzaileak eta musika-sustatzaileak) Bizkaian kokatzen direla eta lurralde historiko bakoitzeko agente gehienak dagozkien hiriburuetan kokatzen direla.

la sektore guztietan badago jarduera eta diru-sarrerak biltzen dituen agente-talde txiki bat.

Agente-tipologia bakoitzeko asimetriak aztertzearen bitartez egiaztatu ahal izan da kasu guztietan, arte-galerien kasuan izan ezik, diru-sarreraren bolumen handiena duten agenteen % 20k biltzen duela diru-sarreraren % 60 baino gehiago. Asimetria-maila desberdina da kasu bakoitzean baina diru-sarreraren eta neurri txikiagoan, enpleguaren metaketa gertatzea eredu orkorra da.

Asimetria handienak (diru-sarreraren % 80tik gorako metaketa) agente erakusleetan gertatzen dira, esaterako arte eszenikoetako programatzaileetan, ikusizko-arteak erakusteko zentroetan eta kontzertu-sustatzaile pribatuetan. Bigarren mailan, diru-sarreraren % 70tik gorako metaketarekin, agente erakusleak (kontzertu-aretoak eta musika-programatzaile publikoak), ikus-entzunezko ekoizpen-etxeak eta disko-saltokiak kokatzen dira. Hirugarren maila honako hauek osatzen dute: liburu-dendek, argitaletxeek, arte eszenikoetako ekoizleek (diru-sarreraren % 60 eta % 70 bitarteko metaketarekin) eta galeriek (asimetria gutxieneko agente-tipologia) diru-sarreraren % 55,5eko metaketarekin.

Gutxien industrializatutako sektoreetako agenteak nagusi kopuruan baina ez diru-sarrera eta enpleguan.

Industrializazio-maila handiagoko jarduerak dituzten agenteek pisu erlatibo txikiagoa dute (kultura erreproduzigarriko 243 agente eta zuzeneko kulturako 352 agente). Alabaina, ikuspegi ekonomikotik, kultura erreproduzigarriko agenteak dira diru-sarreraren (% 69,8) eta enpleguaren (% 62,0) bolumen handiena metatzen dutenak. Joera horrek gehiago erantzuten dio sektore bakoitzaren ekoizpen-izaerari EAERI lotutako ezaugarri bati baino.

2007. urtearekiko bilakaerari dagokionez ikus daiteke agente indartsuenak sendotzen ari direla eta agente ahulenek, berriz, bizirauteko arazoak dituztela.

2007-2009 aldian izandako bilakaerak erakusten du aurrekontuari dagokion agenteen batez besteko bolumen ekonomikoa (diru-sarrerak eta gastuak) dezente handitu dela. Agenteko langileen batez bestekoa ere igo egin da ia agente-tipologia guztietan (ikusizko-arteak erakusteko zentroetan izan ezik). Agenteen dimentsio ekonomikoari dagokion bilakaera positiboak batez besteko jarduera-maila pixka bat igotzea ekarri du.

Ekoizpen-eremuetan euskararen presentzia % 50 ingurukoa da.

Ikus-entzunezkoen ekoizpen-etxei, arte eszenikoetako ekoizleei eta diskoetxei dagokionez, euskararen presentzia % 50 ingurukoa da eta liburuaren sektorea da ekoizpen-eremuan dagoen joera orokor horren salbuespena; izan ere, sektore horretako euskarazko ale kopuruaren ehunekoa % 41,8 da.

Erakusleen kasuan, arte eszenikoei dagozkien datuak baino ez dira aurkezten dira eta horietan euskararen pisua txikiagoa da: % 36.

Begi bistakoa denez, adierazle horren esanahia oso desberdina da eremu batean eta bestean: ekoizpenaren eremuan sortzailearen eta enpresaburuaren aukeraren gaineko informazioa ematen digu. Kasu horretan, hizkuntza kultura-aukera bat da baita zuzentzen zareneko merkatuaren gaineko aukera ere. Erakusleen kasuan ere, azterketa bikoitza eta osagarria da: eskaerak eskaintzan eragiten du, baina aldi berean eskaeran eragiten du (zenbait kontsumo ezinezko bihurtzen dituelako, baina baita kontsumo-ereduak sortzen dituelako ere).

Musika eta dantza dira nazioartekotze-maila handiena duten sektoreak.

Musika-programatzaileek programatutako kontzertuen ia % 35 atzerriko edo nazio anitzeko artistenak edo taldeenak izan dira. Era berean, musika-ekoizpena kanpo-merkatuei irekia dago eta egiten diren kopien laurdena atzerriko talde eta artistei dagokie.

2007-2009 aldian kanpo-merkatuetako presentzia gutxitzeko joera izan da antzerki-konpainietan; dantza-konpainietan, berriz, aurkakoa gertatu da, horien presentzia nazioarteko merkatuetan dezente hazi baita (% 19tik % 31ra).

Kultura-enpleguan zifra globalek gizonen aldeko desoreka txiki bat erakusten badute ere, sektore bakoitzeko errealitatea oso desberdina da.

EAEko kultura-sektoreko langileen artean, gizonen presentzia (% 55,2) emakumeena (% 44,9) baino pixka bat handiagoa da. Gizonen presentzia handiagoa duten agente-tipologien artean, azpimarragarriak dira kontzertu-aretoak, horietan langileen ia % 80 gizonak baitira; ehuneko hori disko-saltokietan ikusten denaren antzekoa da, emakumezko langileen ehunekoak % 30 baita. Bestalde, ikusizko-arteetako ekoizleen artean, langileen % 76,9 emakumeak dira eta ondoren liburu-dendak kokatzen dira, emakumeen % 67ko ehunekoarekin.